



Txaloak artzaintzari

50. urteurrena bete du Uharteko Arakilgo Artzain Egunak artzaintza biziaren alde eginez



Txirinbulok, Altsasuko udal haur eskolak, behin betiko egoitza hasiko du ikasturtea asteartean / 11

Otsoportillon 1936ko estatu kolpearen ondorioz eraildakoak gogoan izanen dituzte igande eguerdian / 3

Ihabarren gaur hasiko dira festak, astelehenera arte. Eta Ziordiaren txanda asteazkenean da / 14

Altsasuko Otadiko Kristo Deuna pilota txapelketa larunbatean hasiko da, 22:00etan / 15

Ezin zailagoa, XVI. Nafarroako Zirku Jaialdiaren egoitza izanen da Altsasun larunbatean / 23

SAKANA
Itsasi AEK euskaltegia

aek
euskara praktikoa

Izena emateko azken eguna: Irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46
ALTSASU
948 468 258
sakana@aek.eus



DIRU-LAGUNTZAK/ BECAS

EUSKARA IKASTAROAK

Sakanako Mank: BEKAK



Yolanda Beltza, Josu Rubio, Marisa Maiza eta Juan Pedro Higuero Melillan. SAKANA HARRERA HARANA

Mugak zabaltzeko asmoz, Melillara

Sakana Harrera Harana taldeko lau kidek Mugak Zabalduz karabanaren parte hartu dute. Tuteran eta Melilla arteko bidean ikusitakoak eta bizitakoak kontatu dizkigute. Eta salatu Europak migratzaileei jartzen dizkien trabak eta egiten dien harrera eskasa.

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Mugak Zabalduz karabana 14an abiatu zen Tuteratik. Helmuga Melilla zen eta bederatzi eguneko bidaian hainbat geldialdi egin zituzten haien mezua helarazteko: Batasuneko eta Espainiar estatuko migrazio politikak salatu. Sakana Harrera Haraneko lau kidek parte hartu zuten karabanaren: Josu Rubio,

Juan Pedro Higuero, Marisa Maiza eta Yolanda Beltza. Esperientzia aberasgarria izan dela esan dute.

Ehun bat kolektibok eta bostehun pertsonak osatu zuten karabana. Tuteratik Melillara bidaia egin dute Europako eta Espainiako migrazio politikak kriminalak salatze eta errefuxiatu eta migratzaileen

eskubideak bermatu dezaten eskatzeko. Karabana joan den urtean sortu zen eta Melillara joatea aurreikusi zuten, baina Grezian izandako errefuxiatuen krisiarekin hara joatea erabaki zuten. Beraz, aurten 2016an prestatutako ibilbidea egitea erabaki zuten, Josu Rubiok Sakana Harrera Taldeko kideak azaldu duen bezala.

Melilla Europako hegoaldeko muga da. 2005ean "inmigrazio krisia" deitutakoa bizi izan zen eta Europako mugak indartzeko asmoz, Europako Batasunak Marokorekin hitzarmenak egin zituen. Ondorioz, Maroko "herrialde segurua" izendatu zuten, "orain Turkia eta Greziarekin egin bezala". Horrek esan nahi du, bertara iristen diren migratzaileek herrialde horretan eskatu behar dutela asilo politikoa, Mugak Zabalduz karabanako Sakanatik joandako kideek azaldu duten bezala. "Iristen diren lehenengo herrialde seguruan geratu behar dira, Maroko bada, bertan gelditu behar dira". Hor-taz, "arazoa" Europatik kanpo gelditzen da. "Maroko, Mauritania, Senegalek... lan zikina egiten dute; poliziak dira". Mugak Zabalduz karabanaren xedea Melillan gertatzen dena lehenengo pertsonan ezagutzea zen.

"Mugak ixten zaizkienez, beste bide batzuk bilatzen dituzte. Beraz, errefuxiatuak Greziatik sartzen zirenez, Turkiarekin egin zituzten hitzarmenak herrialdea segurua dela esanez. Gainera, Hungarian eta Kroazian harresiak jarri dituzte". Horrela, dagoeneko Greziara errefuxiatu gutxiago iristen direla azaldu dute. "Baina Mediterraneo erdialdetik sartzen saiatzen dira orain, eta hildako gehiago izaten dira". Hitzarmenak ez direla betetzen salatzen du karabanak.

Gerrak

Gerrak dira migrazio eta pertsonen mugimendu handienak sortzen dituen arrazoi nagusietako bat. Mugak Zabalduz karabana Tuteran hasi zen, Bardeetako tiro eremuan hain zuzen ere. "Bardeetan gerra horietan

erabiliko dituzten armak probatzen dituzte. Gaitz guzti honen hasiera da". Tuteran Euskal Herriko kolektiboak bildu ziren, baita Aragoi eta Errioxako hainbat kide ere. Tuteratik Madrilera joan ziren. Madrilen Kongresuaren aurrean kontzentrazioa egin ondoren, Andaluziara bidea hartu zuen karabanak. "Geldialdi bakoitzean bertako kolektiboetako jendea karabana gehitzen zen".

"Sevillan engainatuak sentitu ginen. Manifestazioa egiteko baimena geneukan, baina periferiako auzoetatik eraman gintuzten. Ez zegoen inor". Geldialdi bakoitzean manifestazioa, kontzentrazioa, manifestuaren irakurketa edota performanceak egiten zituzten. Algecirasen eta Tarifan CIEak, atzerritarrendako zentro itxiak, ikusteko aukera izan zuten. "Eraikin zaharrak dira, eta ez dituzte oinarriko beharrak betetzen. Algecirasekoa zaharkituta gelditu den espetxe bat da, eta Tarifakoa irla batean dago, gotorleku batean".

Malagan ferrya hartu zuten eta Melillara abiatu ziren. Melillako giroa "guztiz militarizatu" dela salatu dute. "Iritsi bezain laster Francoren estatua zegoen. Horrek ideia bat ematen du". Gainera, hiri autonomikoaren gizartea guztiz estratifikatua dagoela azaldu dute: "militarrak eta arabiar jatorriko jendea dago. Gizarte mailak oso bananduta daude. Ez dira elkartzten".

"BARDEETAN GERRETAN ERABILIKO DIREN ARMAK FROGATZEN DIRA. GAITZAREN HASIERA DA"

Ostiralero SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Mugak Zabalduz karabanako parte-hartzaileak.
- Hatortxu Rock 20ko balorazioa.
- Altsasuko haur eskolaren mustutzea.

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE



Protesta ekitaldia. SAKANA HARRERA HARANA

"Iritsi ginenean alkateak esan zuen hiria perroflauta zikinez bete zela; eta lanera joan behar-ko ginela". Melillan migrazio eta etorkinen eskubideen alde lan egiten duen jendea oso gutxi dela nabarmendu dute, baina "ulergarria" dela. "Beldurra dute. Gu joan ginen, gure nahiak azaldu eta eskubideen urraketa salatu genuen eta etorri ginen. Haiek han gelditu ziren, eta batzuek lana galtzeko beldurra zuten". Hala ere, Melillako herritarren artean haien mezua beste "hamaika" pertsonetan

hedatu bada pozik daudela esan dute. "Oso zaila izan zen. Manifestazioak egiteko baimena geneukan, baina espaloietatik joan behar ginen. Semaforoa gorria zegoenean, berdea jartzeko itxoin behar genuen".

Penintsulan bueltan Almeriatik pasa ziren "jornaleroen" bizi baldintzak gertutik ikusteko. "Calaisen ikusitakoa eta bizitakoa baino askoz txarragoa zen Almerian ikusitakoa". Fruta eta barazki zelaietan lan egiten duten gehienak migratzaileak dira eta haien bizi baldintzak oso txarrak dira: "txaboretan bizi dira, ur korronterik gabe, elektrizitate gabe... eta lana egiten dute. Hori da iraingarriena".

Poliziaren presentzia hasieratik izan zutela salatu dute *Mugak Zabalduz* karabanan zihozten sakandarrek. Gainera, karabana atera aurretik baimen guztiak eskatu zituzten arren, hainbat herri eta hiritan arazoak izan zirela esan dute. "Arazo larriena lo egiteko lekuarekin izan ohi zen. Baimena ematen ziguten, baina leku ez oso erosotan edo azken unean leku horretan zerbait gertatzen zen".

Harremanetarako

Facebook: SakanaHarrera.
sakanaharreraharana@gmail.com
e-postan ere.



Migratzaileen heriotza dakarten politikak salatzen. SAKANA HARRERA HARANA

Irailak 26

Egun horretarako Espainiak 17.000 errefuxiatu hartzeko hitza eman zuen, baina %10 baino ez dutela onartu salatu dute. Pertsonen mugimendu eskubideak bermatzeko mozioak aurkeztu dituzte udaletan eta festetan argazki erakusketak egin dituzte.



Igandeko ekitaldia antolatzeko hitzarmena sinatu duten udal ordezkariak. ARTXIBOA

Otsoportilloko lezeko hitzordua heldu da

Igandean, 12:30ean, egingen da 1936ko estatu kolpearen ondoren eraildakoen omenezko ekitaldia. Joan den urteaz geroztik ibarreko udal guztiak elkarrekin antolatzen dute omenaldia. Antzezpena, musika, auzatea eta beste izanen dira

SAKANA

Hitz emandakoari segituz, Sakanako udalak elkartu eta elkarrekin antolatu dute Otsoportilloko omenaldia. Aurten ardura Arruazu eta Lakuntzako udalena izan da. Haien bidez udal guztiak sakandarrak "1936ko altxamendu faxistak eraildakoen omenez" egingen den ekitaldian parte hartzera gonbidatu dituzte, igandean, 12:30ean, Otsoportilloko lezean. Omenaldiak faxismoaren aurka, oroimenaren alde leloa du, aurrekoetan bezala. Aurten ekitaldi berezia izango da, Sakanako Udal gehienek hitzarmen bat sinatu dute ekitaldia antolatzeko.

Otsoportilloko lezetik bederatzita pertsonaren hezurdurak atera zituzten Aranzadi Zientzia Elkarteak kideek joan den urtean. Haietatik soilik lau identifikatu dira.

Hobien mapa

Memoria elkarteek, ikertzaileek eta informatzaile partikularrek

emandako informazioetan oinarrituta Nafarroako Gobernuak 1936an jendea non erail zuten jasotzen zuen mapa bat egin zuten: Nafarroako hobien mapa. Hala, gobernuak Memoria Historikoari buruzko 52/2007 Legeak eta 1936ko estatu-kolpe militarrek eragin zuen errepresioaren ondorioz hildako nafarrak aitortzeko eta haien moralara ordaintzeko 33/2013 Foru Legeak esandakoa bete zuen.

Foru administrazioak agorrilean jakinarazi zuenez, hobien mapa eguneratu egin du. Haren arabera, ibarrean bost hobi daude: Oskiako txipudia, Murgindueta, Etxarri Aranazko hilerria eta Aritzako basoa eta Altsasun NA-1000 errepidea (N-1 errepide zaharreko 401 km), Gipuzkoako mugatik gertu. Azken horretan prospekzioa egin dute, gainontzekoetan ez. Horietaz aparte beste bost hobi Urbasan daude: Urbasako saroiko eta Otsoportilloko lezeak (induskatuta) eta Ordutz eta Basauntziturriko



Pasaden urteko irudia, monolitoan. GUAIXE

lezeak (aztertu gabe). Lau leze horiez gainera Ubaba (balcón de Pilatos) dago hobien mapan. Interneteko tresna horrek toki bakoitzean zein hil zuten, nongoa zen eta zein erakundeko kide zen jakinarazten du.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Irailaren lehenarekin

Aurten Guaixeko opor-itzulera irailaren lehenarekin gauzatu da. Horrela agindu du egutegiak eta lehen ostirala hilaren mustutzearekin datorrigu. Jende gehiena honezkero etxean, batzuk-batzuk bidean eta bakan batzuk oporrei azken ttanttak zukutzen ari dira.

Uharten Artzai Egun berezia ospatu berri dute

ohorez eta arrakastaz, Neolitikotik heldu den antzinako ogibide bati ikusgarritasuna emanez, Euskal Herriaren izaera hezurmamitu zuen bizimodu bat erakutsiz eta etorkizuneko belaunaldietan artzaintzak eduki ditzakeen aukerak aurkeztuz.

Artzai Egunaren ondoak, bestalde, errutinaren hurbiltasunak iragartzen

digu. Bero-galdak, argi-orduak bezala urritzen doaz emeki eta udazkenaren lehen zantzuak izango ditugu sarri geure begietan, Sakanako basoak urrez eta gorritzez hornituko dira ibiltarien opari eta taxuz antolaturiko supilak erabiltzeko garaia gerturatzen zaigu.

Bergisan piper erreen usaina aditzen hasiak gara

eta Donostiako estropaden egunak ate joka ari zaizkigu. Arraun lehiaketa hauei aspaldi kantatu zien Orixe idazleak Euskaldunak liburuan. Handik jatorrizko grafiak bere hartan utzirik bi bertso ekarri dizkizuet. Irail on-ona urai ezazue.

(...) „ Ontziak ola, arraunak ala/ mutillak ez aundiegi/ zama aundiz lana bota ez dien/ gainez beren burueri./

Lerden, indartsu, besoak zaiñar, / gorputza, berriz, giarri/ sabela serail, lepoa legun/ batez ere biguin gerri. (...)

Esnezaleak atez ate ta/ èk, kalez itsas-egira./ Uri aundian amaika loti/ maindire-tartean dira./ Ez dira esnatzen eguzki-izpa/ etorri arte begira. Egu aretan eguzki ere/ makar-gabeko jeki da.”

HARA ZER DIEN

Xenofobiatik aporofobiara

ANITZARTEAN ZERBITZUA

Izenik gabeko gauzak hatzez adierazi izan dira historikoki. Nola izendatu gorputz fisikorik gabeko errealitate pertsonal eta sozialak?

Ezin hatzez adierazi demokrazia, askatasuna, totalitarismoa, edertasuna... ezta xenofobia, homofobia, islamofobia, arrazakeria... Errealitate sozial hauek, izen bat behar dute: badirela jakiteko, eta haiekiko jarrera bat hartzeko. Horixe gertatu da xenofobia eta arrazakeriarekin: pertsona zehatz batzuekiko gorrotoaz ari gara, edozein dela ere arrazoia. Kasu guztietan, mesprezatzen duenak mesprezatzen duenarekiko handitasun jarrera azaltzen du. Azken urteetan Europan xenofobiaren termometroak

ikaragarri egin du gora. Ez dago, ordea, oso argi igoera horren sustraian xenofobia bezalako jarrera soilik dagoenik.

Badirudi ez dela atzerritarra, kanpoko delako soilik, beldurra sortzen diguna. Izan ere, ez digu beldurrik sortzen futbol taldeek erosten dituzten ekialdetarrak; edota jatorri anitzeko futbolariak; ezta flamenkoan arrakasta duten ijitoek... Aldiz, atek ixten dira errefuxiatu politikoentzat, etorkin pobreentzat, eskean dabilen jendearentzat...

Hortaz, arazoa ez da arraza, edota jatorria, atzerritarra. Arazoa pobrezia da. Pobrea. Pobrea, áporos grekeran, da traba egiten diguna. Pobreaki fobia izateak eramaten gaitu

pertsona hori baztertzeraz. Pertsona guztien duintasun berdinarekiko errespetuan oinarritzen den kultura morala eta politiko batek gainditu behar lituzke egunerokoan ematen diren diskriminazio modu hauek.

Beharrezkoa da pobrea baztertzeke jarrerari izen bat jartzea; jarrera horrek bizi sozialean indar handia duelako, justu, anonimatuak abiatzen delako.

Pobrea baztertzea, izen-abizenak dituzten pertsonen duintasunaren kontrako atentatu bat da. Duintasun berdinen errekonozimendua, eta ongi ulerturiko konpasioa, zentzuzko etika baterako bi ardatz dira; negoziatu ezinak, diskriminazio ankerraren mundu hau gainditzeko.

OBJETIBOTIK



Ekaitzak utzitakoa

Zeruari begira pasatzen dugu bizia. Uda beroa datorrela, batek; ez duela udarik egin, besteak. Uraren falta dagoela, albokoak. Eta aldaketa klimatikoa, ondokoak. Kontua

da aste honetan ekaitzek zeresana eman dutela. Asteazkenean, esaterako, kristona bota zuen. Uda bukatu dela, batek, eta falta egiten zuela, besteak.

guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Kolaboratzaileak:

Larraitz Amadoz Lazkano
Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea:

Felix Alzela Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Langabezian luze daudenendako programa

Nafar Lansarek prestakuntza eta enplegu-programa integratuaren eskaintza egin du Sakanarako. Lantegi eskolen antzekoak, haiek baino laburragoak dira, 2 eta 11 hilabete artean irauten dute. Nafar Lansaren izena emana izan behar da

SAKANA

Prestakuntza eta enplegu-programa integratu berriak antolatuko Nafar Lansarek diru-laguntzen bigarren deialdi bat argitaratuko du astelehenean. Prestakuntza eta enplegu-programa integratu berriak dira, aurten abian jarritakoak. Langabeendako dira, eta prestakuntza, orientazioa eta lan-merkatuan sartzeko bideak barne hartzen dituzte.

Nafarroako Gobernuak emandako laguntzarekin tokiko erakundeek, elkarteek, fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuek, prestakuntza-zentroek edo enpresek susta ditzakete prestakuntza programa horiek. Haiek aukera izanen dute programa hori aurten edo heldu den urtean abiarazteko. Nafarroako Gobernuak 3,5 milioi bideratuko ditu programa horietarako 2017an eta 2018an; 1,23 aurten eta 2,4 heldu den urtean.

Orain hamar arlotan daude plazak: orga-jasotzaile gidaria, zerbitzaria, gizarte eta osasun laguntza, sukaldaritza... Zerrenda www.empleo.navarra.es web-orrian kontsulta daiteke, prestakuntza atalean, eta www.formacion.info webean. Parte hartzeko, enplegu-bulegoan izena emanda egon behar da.

Programaz

Iraupen luzeko langabeendako da programa hori. Parte hartzen dutenek 2 eta 11 hilabete arteko iraupena duten saioetan ariko dira. Horietan, orientazio individualizatuak eragin handia du.



Langileak Santrustegiko sare eta zolatzeko lanak despiditzen.

Prestakuntzaren aurretik, prestatzen diren bitartean eta prestakuntza amaitu ondoren, parte-hartzaile bakoitzak tutore baten bidez pertsonalizatua jasoko du. Tutore horrek ibilbide-orri bat diseinatuko du laneratzea lortzeko.

Horretaz aparte, langile horiek enpresekin jartzen dira harremanetan eta lan-eskaintzak jakinarazten dituzte. Lan-esperientziak antola daitezke enpresetan (lanekoak ez diren praktikak edo beste edozein kontratazio-modalitate). Bestalde, programan parte hartzea laguntzeko, erakundeek eguneko 12 euro arteko bekak eskaini ahalko dizkiete ikasleei. Nafar Lansare iraupen luzeko langabeak lanean lehenago hasiteko prozesuak areagotzen hasiko da. Horretarako, zerbitzu berri bat aterako du, prestakuntzari eta eskaintzei arreta handiagoa jartzeko.

Langabezian, gora

Nafar Lansarek jakinarazi duenez, garila akaberan 996 sakan-dar langabezian zeuden, garagarrilean baino 37 gehiago. Generoari erreparatuta 20 emakumezko eman zuten izena lana bilatzeko eta gizonezkoak 17 izan ziren. Langabe sakan-darren % 59,84 emakumezkoak ziren (596) eta % 40,16 gizonezkoak (400).

Adinari erreparatuz gero 45 urte edo gehiago dituztenen taldea da langabe gehien dituen taldea, % 49,8 (496). Ondoren 25 eta 44 urte artekoak daude, % 39,46 direnak (393). Azkenik 25 urtez azpiko % 10,74 langabe daude (107).

Bestalde, Sakanan garilean 771 kontratu sinatu ziren. Horietatik % 55,38 gizonezkoek sinatu zituzten eta % 44,62 emakumezkoek. Kontratuen % 95,46 aldi baterako izan zen



HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA

Eskaladarako sarbide-probak

Sakana Lanbide Heziketako ikasketek mendi ertaineko kirol tekniko zikloa eta eskaladako kirol teknikari izateko ikasketak eskaintzen ditu. Bi ikasketak horietan izena emateko aparte deialdi heldu den ostegunean eta ostiralean izanen da, irailaren 7an eta 8an. Sarbide-probak garagarrilean izan ziren, eta oraingoan ezohiko izenematea izanen da.

Hezkuntza Departamentuak egiten duen kirol-eskaintza ikas-

keten artean, mendi eta eskaladan trebatzeko aukera ere badago. Sakana LH ikasketean egiten da ikasketak eskaintza, eta dagoeneko hauta-probak ere antolatuta dituzte.

Aurten mendi ertainen bostgarren edizioa eta eskaladako bigarrena izango dira. Matrikula irailan egingen da, eta ikasketak lastailan hasiko dira. Ikasketarekin harremanetan jartzeko: 948 564 815 eta ieste-xer@educacion.navarra.es

Migratzaileendako arreta eta aholkularitza zerbitzu berria

Atzerriartasun gaietan argibideak emanen dituzte Anafe fundazioko kideek Altsasun

SAKANA

Agorrilaren 1etik indarrean da Nafarroako Gobernuak eta Anafe fundazioaren arteko hitzarmena. Foru administrazioak deialdia egin zuen eta fundazioak lortu du zerbitzu hori emateko kontratua. Ondorioz fundazioak migranteendako atzerriartasun gaietan arreta eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du Nafarroa guztian. Migrazio-fluxuen bertakotzea eta gizarte-kohesioa lortzeko Nafarroako Gobernuaren estrategietako bat da aipatu zerbitzua.

Nafarroako Gobernutik azaldu dutenez, zerbitzu berria dauden osagarria izanen da. Migratzaileei, eta harrera jendarteari ere, atzerriartasun arloko aholkularitza, informazioa eta orientazioa emanen du atzerriartatzaile kategorian esku-hartze prozesuan elementu bereizgarria denean, eta, horrekin batera, atzerrian sortutakoei dokumentazio prozesuetan lagunduko zaie.

Anafe fundazioak herrialdeko bederatzigarren herrietan eskainiko du bere zerbitzua. Horien artean Altsasu dago.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti · ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Uda bukatzeaz dagoen sasoi honetan, igerilekuak, hondartzak, mendiak eta halakoak utzi eta ikasturte berrira begira jarri behar izaten gara. Ikasturte berria, ikasleentzat, langile askorentzat eta orohar familia guztiarentzat. Erronka berriak eta nahi ezberdinak lantzeko garaia izaten da. Horrekin batera zer esanik ez, ikasleek gelakideak ikusteko unea, besarkadak, lotsatzeko unek, jolasteko orduak...Ikastetxera itzultzeko behar ezberdinak izaten ditugu eta Sakanan horretarako aukera anitzak ere bai. Ongi etorri ikasturte berrira!!!

Sakana optika

Urte osoan zehar zugandik hurbil gaude. Gure osasuna zaintzea gauzarik garrantzitsuenetako bat izanda, zer esanik ez gure ikusmena eta gure entzumena. Teknologia-rik aurreratuen eskaintzen dizugu, langile kualifikatuak. Zatoz gure optikara. Ikusmena osasuntsu izateko askotan garatzen ditugun hainbat ohitura ekidin beharko genituzke:

1 Argitasun gutxirekin irakurri edota lanean aritu.

2 Argitasun handitik babestu behar gara.

3 Hizki oso txikiak dituzten liburuak ez irakurri denbora luzean.

4 Irakurtzerakoan gutxienez 20 cm-tako tartea utzi.

5 Ordenagailua edo antzeko tresnen aurrean denbora asko ez igaro, ikusmena asko nekatzen du.

6 Esku zikinekin ez ukitu begiak.

Zure gorputzak merezi du.




Pinpilinpausa arropa denda

Kalea denontzako leku aproposa bihurtzen da. Xarman-garria da, gure ideia guztiak egi bihur daitezke. Bizi kalea, jabetu eta lagunak egin.

Ikastetxera itzulera prestatzen ari garen honetan, 2017-2018ko udazkenerako eta negurako, kalean, herrian bizitzeak izango duen pisuaz ohartzea da gure nahia.

Pinpilinpausan aurkituko duzu jaio berrietatik 16urte bitartera arte, aurtengo negurako arropa aproposa.



Sakanaoptika
optometria · audiometria · contactología

bestaurukoetan

2x1

%25 era arteko DESKONTUA AUDIFONOETAN

948 563 124 · Intxostia zeharbidea 10 · Altsasu · www.optikasakana.com

Travellers School of English

Ingelesa ikasteko beste modu bat eskaintzen dizugu, dinamikoagoa. Altsasuko plazan gaude kokaturik. Klaseak taldeka eskaintzen ditugu, adin guztietako jendearentzat eta

aurten helduentzako banakako klaseak ere bai.

Ingelesa bertatik bertara eza-gutzeko eta bizitzeko ikasturtean zehar bisitari eta irakasle atzerritarrak hurbilduko zaizkigu. Honekin batera la-

runbata batzuetan tailer eta ekintza ezberdinak izango ditugu.

Zatoz ingelesa bizitzera.

TRAVELLERS School of English

- ✓ URTEAN ZEHAR BISITARI ETA IRAKASLE ATZERRITARRAK
- ✓ MATERIALA ESKOLAREN ESKUA
- ✓ KLASEAK TALDEKA HAUZ ETA HELDUENTZAT ETA AURTEN GRS PARTIKULARRAK HELDUENTZAT
- ✓ KLASE DINAMIKOAK
- ✓ AKTIBITATE ETA TAILER GABERONAK INGELESEZ LARUNBATA BATZUETAN

Juan Martinez Del Olmo | Foru plaza, 17 · Altsasu
travellersaltsasu@gmail.com | 696 55 49 38

Alain Senar akademia

Urtean zehar irakasgai guztiak euskaraz eta gazteleraz eskaintzen ditugu. Matematika, fisika eta kimika, mekanika, elektroteknia, gaztelania, euskara eta beste hainbat. Mailei dagokionez batxillergoa, selektibitatea, unibertsitatea eta LH I eta II. Prestakuntzaren

alorrean eta urtean zehar, maila ezberdineko azterketen prestakuntzarako klaseak eskaintzen dira. Jarraipen pertsonalizatua egiten da ikasle bakoitzaren premien arabera eta %95ek gainditzen dute.

Ikasketa zentro integrala gara.



Alain Senar
akademia • academia

Euskaraz eta gazteleraz
Irakasgai guztiak
Maila guztiak

IKASKETA ZENTROA 606 053 076
Eguberak, 14 | ALTSASU

Ange Jaka akademia



Ange Jaka Akademia
Irakasgai guztiak • Plaza Ierdia
Altsasu • Altsasu

☎ 680 615 877
✉ angejaka@hotmail.com
f Ange Jaka Akademia

Ange Jaka Akademiak irakas-kuntza pertsonalizatua eskaintzen du, etekinak hobetzeko norberaren gaitasunak ezagutzera beharrezkoa delako.

Adimen emozionala, ikasteko eta erlaxatzeko teknikak, ikaslearen psikologia eta garapena, ikasteko zailtasunak, ortografia, idazmena eta ulermena hobetzeko teknikak lantzen dira besteak beste. Zatoz Iortia plazako gure txokora. Ezagutu eta beharrezko azalpen guztiak jasoko dituzu. Norberaren arabera irakaskuntzara egokitzeko prest gaituzue.



Kaxeta liburudenda

Eskolarako behar duzun material guztia Etxarri Aranazko Kaxeta liburudendan aurkituko duzu.

Zure testu liburuak enkarguz ekartzen dizkizugu. Inprimagailuendako kartutxoak, karpetak, agendak, boligrafoak, estutxeak eta bestelako osagarriak eros ditzazkezu.



kaxeta
liburudenda / paperdenda




Enkargatu zure testu liburuak
948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI ARANATZ

Liburunda liburudenda

Uda amaitu eta ikastetxera itzultzeko une honetan, ume eta gazte bakoitzak behar ezberdinak dauzka, Liburundan prest gaude behar guzti horiei aurre egiteko. Motxilak, koadernoak, idaztekoak, eskola material guztia eskura

duzu gure dendan. Prestatu zure motxila eta gogoz itzuli ikastetxera.

Lagunduko zaitugu. Bizkarrereko miñik ez izateko motxila egokia izan behar da eta ez du pisu gehiegirik hartu beharko.

Bizkarraldeak barrubiguna izan beharko luke, uhal zabalak eta gerrialdean bitenka pisua hobe banatzeko.

Garrantzitsua da ere pisu gehien duten objektuak bizkarretik ahalik eta gertuen kokatzea, ez ahaztu.





antartiko
Munduko koadernorik onena
TV

Liburunda Altsasu
liburunda@hotmail.es
c/Burunda nº 6 - 948 46 92 01

Fotokopiak
Koadernatzeak
Plastifikazioak
Eskola materiala eta literatura

DESKONTUAK
%10 familia ugariak eta Beleixeguaxe txarteldunek ikastetxeko materialetan

Lidia Martinez akademia

Irailaren 18tik 29ra klaseak hartzeko aukera eskaintzen dizuegu baina kurtso hasiera ofiziala urriaren 2an izango da.

LIDIA MARTÍNEZ
AKADEMIA



BAKEA, 1
ALTSASU
626 084 133

Lidia Martinez akademia 1997tik dago zabalik eta Sakana osoko ikasleak hartzen ditu, hezkuntzan esperientzia zabala izanik.

Maila guztietarako eskaintza dauka irakasgai ezberdinetan, besteak beste, matematika, fisika, kimika, lengua eta beste hainbat irakasgai. Jarraipena neurritan egiten da norbanako edo talde txikitetan.

Emaitzak ziurtatuta daude eta horrek konfidantza adierazten du.



Irañetako festetan ere auzipetutako Altsasuko gazteak gogoan izan zituzten. UTZITAKOIA

Agorrilean ere aldeko mezua hedatzen

Ferietako liskarragatik auzipetutako gazteen epaiketa data irail akaberan jakinarazi dezakete eta manifestazio handi batean parte hartzeko prestatzen hasteko gaztigatu dute. Bitartean agorrilean ez du etenik izan haien aldeko dinamikak

ALTSASU

Hamar hilabete eta erdi darimate preso Adurrek, Jokinek eta Oihanek. Haien askatasuna aldarrikatu eta ferietako liskarraren inguruko auzia salatzen dinamikak ez du etenik izan agorrilean. Atxiloketak izan ziren hileko egunean, 14an, kontzentrazio jendetsua egin zen Altsasuko Dantzaleku igerilekuan. Eta altsasuarrek ez dute ostiraleroko hitzorduetan hutsik egin. Auzipetutakoen elkartasuna Boliviaraino eraman du brigadista talde batek, eta gazteen aldeko ikurra erakutsiz Evo Morales presidentearekin batera argazkia atera zuten.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetakoko festetan ere tartea izan da Altsasuko auziarrendako. Hiruetan "ozen eta argi" errepikatu dute "politika, hedabide eta epaitegi muntaia pairatzen" ari direla. "Ezusteke gertakari bat probestu nahi dute gazteria zapaltzeko eta zilegiak diren aldarrikapenak isilaraz-

teko. Altsasu herri antolatua da, eta ematen du horixe dela gure delitua".

Azaldu dutenez, "jokoan dagoena ez da, soilik, gure lagunen etorkizuna: gizarte osoaren etorkizuna jokoan dugu. Askatasuna murrizteaz ari gara, oinarritzko eskubideak murrizteaz ari gara, eta legea komeni bezala erabiltzeaz ari gara. Horrek guztiak gizarte osoari eragiten dio". Gaineratu dutenez, "zoritxarrez, espetxeak bete egingo dira gure kasua bideratzen ari diren interesek 573. artikulua modu estentsiboan aplikatzeko teman jarraitzen badute". Diotenez, "orain arte ikusten ari garena ikusita, justizia-bermerik egongo ote den zalantza handiak

**2016AN 9.571
AUTORITATEAREN
KONTRAKO ATENTATU
IZAN ZIREN ESTATUAN,
8.364 ATXILOTUREKIN**

dauzkagu; horregatik, justizia gailendu dadin borrokan segituko dugu".

Kataluniatik bisitan

Xarxa Anti-repressió de Familiars de Detingudes taldeko guraso talde bat Altsasun izan zen agorrilaren erdialdean. Kataluniarrek Altsasuko auziaren inguruan sortutako elkartasun oldearekin miretsita daudela esan zuten. 375 urteko zigor eskaera "ikaragarritzko desproporzioa" dela gaztigatu dute. "Taberna borroka bat ekintza terroristatzat hartzea gertatutakoa aldatzea da" adierazi dute.

Hiletan

Ostiralean preso dagoen gazte baten amonari lur eman zioten. Gaztea espetxetik herrira azken agurra ematera ekarri zuten. Elkartasun keinu asko izan ziren harendako. Guardia civilak harekin izan ziren uneoro, eta haiek izandako jarrera oso kritikatu izan da herrian.



GUAIXE

Kale berriak festetan mustuta

Txikiekia batzuen faltan, Satrustegin herriko sareak eta zorua berritzeko lanak despeditu dira. Agorrilaren 18tik 20ra izan ziren festetan satrustegiarrek eta bisitariek kale berriak mustu zituzten. Lanek 700.000 euroko aurrekontua izan dute eta haren %70 Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin ordainduko du Arakilgo Udalak.



UTZITAKOIA

Bernoan, bide egiten

Bernoako galtzada azaleratzeko lan berriak egin dira uda honetan. Hala, agorrilaren 10etik 24ra DeAmicitia GKEko boluntario talde bat Iturmendi, Bakaiku eta Etxarri Aranatzen lanean aritu zen. Haiek gure artean zeudela baliatuta, bi auzolan deialdi ere egin ziren, 12an Iturmendin eta 19an Etxarri Aranatzen. Mandazainek erabilitako harbidea gero eta hobeto dago.

Etzegabeen aterpea kamineroena zen etxe batera pasako da

Kaputxinoen komentuan dagoen aterpeak ez ditu baldintzak betetzen eta Altsasuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak adostasuna lortu dute: 16-d blokeko behe solairuak hartuko du aterpe berria. Udalak aurtengo aurrekontuetan 50.000 bideratu bazituen, agorrilaren 11n egingako bilkuran lanetarako 106.110 euro gehiago bideratu zituen.



BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Argazkiko eremuan kokatuko da 852 m²-ko plaza GUAIXE

Altsasuko Udalak hainbat lan eginen dituela jakinarazi du

Diruzaintzako gerakinean duen diruarekin milioi erdi baino gehiagoko inbertsioak eginen ditu udalak

ALTSASU

Altsasuko Udalak joan den urtea 641.420,81 euroko superabitarekin itxi zuen. Aurretik zuenari gehituta, Altsasuko Udalak 1.793.173,71 euroko diruzaintzako gerakina du. Baina Aurrekontu Egonkortasun Legeak diru horrekin nahi duen guztia egiteko aukera mugatzen dio udalari. Hala ere, hainbat lan egitea erabaki zuen agorrilaren 11ko udal bilkuran.

Haur eskola berriaren eta Auzobide kalearen artean 852 m²-ko plaza eginen da, egun dauden sei zuhaitzak errespetatuz. Urte akaberarako lanak eginak izanen dira eta 115.862,41 euroko aurrekontua dute lanek.

Bestetik, frontoiko tabernaren parean elurra kentzeko gatzak jandako porlana dago lurtean. Egoera kaxkarrean dagoen 400 m²-ko azalerako eremua konpontzeko 32.000 euro bideratuko

ditu udalak. Eta 30.650 euro Otdian kirol anitzetarako gune bat prestatzeko. Beste 12.900 euroekin Iruñea etorbideko espaloien zorua berri zehrabide goratuen zorua berrituko dira. Horrela, joan den urtean hasitako lanei segida emanen zaie. Bi lan horiek udaleko langileek eginen dituzte.

Kaleetako zoruan dagoen asfalto ere berrituko ditu udalak, zehazki: San Pedrorako bideko zati bat (9.800 euro) eta Ondarria industrialdeko B kalea (46.600 euro).

Basoko pistak eta dermioko bideen egoera txarrari buelta ematen hasteko 2016an Otadi eta Mendizabalazpi konpondu bazituzten, aurten Otaibarren (14.529,84 euro) eta Basomutur (8.711,61 euro) bideen txanda izanen da. Guztira 23.241,46 euroko inbertsioa. Beikolarako pista konpontzea faltako litzateke.



Monitore bikotea Dantzalekuko zelaian. GUAIXE

Hizkuntza prestakuntza ikastaroa begiraleendako

Euskarazko sozializazioa sustatzeko begiraleak pertsona gakoak direlako antolatu da ikastaroa. Irailaren 8an eta 9an izanen da Altsasun. Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuan eman behar da izena, irailaren 4a baino lehen, astelehena.

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019) onartu zuen ilbeltzaren 25ean. Bertan zehaztutako egin beharren artean jasotzen dira "hizkuntza dinamizazioa prestatuntza ekintzak egitea monitorea, hezitzaile, entrenatzaile eta antzekoekin, egiten dituzten ekintzetan euskararen erabilera susta dezaten" eta "monitore, hezitzaile eta entrenatzaileei hizkuntza prestakuntza tekniko eta baliabideak ematea (bereiazko hiztegiak, ikastaroak, materialak eta abar). Horrela, Euskarabideak begiratzaleendako 9 ikastaro antolatzea erabaki du, Dindaia fundazioaren bidez,

eta horietako bat Altsasun eginen da, Mank-en eta udalaren laguntzarekin.

Begiraleak eragile: euskarazko sozializazioa sustatzeko ikastaroa

Izenburu hori du Altsasun irailaren 8an -17:00etatik 20:00etara- eta irailaren 9an -10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara- Dindaia Fundazioak eskainiko duen ikastaroa. Zelandi kiroldegiak hartuko du ikastaroa, eta monitoreei, hezitzaileei eta entrenatzaileei zuzendua dago. Edukiari dagokionez, hezitzaileendako gobernua argitaratutako gidaren aurkezpena eginen da; Nafarroako euskararen ego-

ra eta oinarri soziolinguistikoak azalduko dira; aisialdiko jardueratan euskara sustatzeko estrategiak eta teknikak aipatuko dira eta euskara sustatzeko baliabideez eta ondorioez arituko dira bildutakoak. Parte-hartzaileei gidatzea banatuko diete.

Izena emateko

Joan nahi dutenek irailaren 4ra arte (eguerdiko 12:00ak arte) eman dezakete izena Mank-eko Euskara Zerbitzuan (948 464 840) edo euskara2@sakana-mank.eus). Ikastaroa eskaini ahal izateko gutxienezko kopurua 10-12 lagunekoa da, eta gehienezkoa 25ekoa. Plazak izena emateko hurrenkeran beteko dira.

Zuzendaritza berria PSN-n

PSNk aldaketak egin zituen bere batzorde exekutiboan garilaren 29an. Maria Chivitek jarraituko du idazkaritza ordezkari izaten, baina aurpegi berriak daude. Tartean dago egun Olatzagutian zinegotzi den Jose Maria Acerete. Berak Nafarroako Iparraldeko Guneko udal ekimeneko idazkaritza exekutiboaren ardura hartu zuen zuzendaritza berritzean.



UTZITAKOIA

BILTOKI
TABERNA • JATETKA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomata (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza



Hatortxurockeko bigarren eguneko irudia Beriain gunean. GUAIXE

Hatortxu, ahaztezina eta errepikaezina

Lakuntzak Hatortxu-Rock 20, Euskal Herriko elkartasun jairik erraldoiena hartu zuen garilaren 27tik 30era bitartean. Azkena izan dadila, hori antolatzaileen eskaera, "Nahikoa da, denak etxera!" izan baita aldarr nagusia

LAKUNTZA

Garilaren 27tik 30era ospatu zen Hatortxu-Rock. Lau egunotan puntako kontzertuez aparte, mendi ibilaldiak, hitzaldiak eta mota guztietako ekitaldiak izan ziren Lakuntzan. Baita ezkontza bat ere. Duela urte batzuetako Hatortxu festa batean elkar ezagutu zuen Valentziako bikote batek Lakuntzako jaialdian ez-

kondu nahi izan zuen eta hala egin zuen Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkinek.

Balorazioa

Jaialdia despeditu eta ia hila-betera haren ordezkari Endika Alonsok eta Aitor Agirrezabalek Lakuntzako festetako etxajua piztu zuten. Agirrezabalek esan zuenez, "halako jaialdi bat herri-

txiki batean antolatzeak herriarendako arazo asko sortzen ahal ditu. Hori eta gero Lakuntzak guri eskaintzea txupinazoa botatzeko aukera, uste dut haiek pozik gelditu direnaren seinale dela. Hori ohorea da". Oraindik ere desmuntaiarekin daudela jakinarazi digu Alonsok.

Hark aitortu zuenez, antolatzaileek ez dute elkartzeko as-

tirik izan. Antolakuntzako ba-koitzak bere balorazioak dituztela eta jendeari entzun dietenagatik "oso onak dira. Egia esan, oraindik ez gu, ez jaialdi honetan modu batera edo bestera parte hartu duen inork ez duela aukerarik izan perspektibarekin ikusteko zein handia izan den. Nere ustez jende asko hau betirako gogoratuko du".

Agirrezabalek esan zuenez, "aurreikuspenak gainditu genituen. Bagenekien milaka pertsona etorriko zirela. Ni, batez ere, ostegunak harritu ninduen gehien. Jendea 07:30ean ilara egiten ari zen. Eta egun horretan milaka jende etorri zen eta ostiraleko 04:00etan jendea iristen ari zen". Ostiralean gauza bera gertatu zela eta jendearen erantzunarekin "oso pozik, baita milaka pertsona horiek izan zuten jarrerarekin". Agirrezabalendako jaialdiko egunetako gauzarik garrantzitsuenetako bat giroa izan zela nabarmendu zuen: "jendea alai, zerbait polita bizi ari zenaren seinale. Jaialdiak helburu batzuk ditu; tristeak dira, baina halako erantzun bat ematea, eta giro onean, uste dut garrantzitsua dela".

Alonsok gaineratu zuenez, "giro polit hori jarritako ilusioagatik izan da. Ez da kasualitatea eszena-toki bati ilusioa izena jarri izana. Presoen etxeratzearen aldeko borroka horretan galduta edo ezkutatuta dagoen ilusio hori berreskuratzeko gure aletxoak jarri dugu. Ilusioa berreskuratu dela uste dut".

Igandeko erronka

Jaialdiaren antolakuntzaren bikaintasuna nabarmendu zuen egun haietan jendeak. Alonsok esan zuenez, hori "hilabete askotako lanaren emaitza da. Per-

tsona asko dena pentsatzen egon gara. Dena ez da atera guk nahien bezala, baina egia da oso pozik gaudela. Gauza asko ongi aurreikusitako dira. Apustua oso handia zen eta tamainako baliabideak jarri ditugu. Horren saria jendearen zoriona da".

Hatortxu izan zen "apustu handi" horren barruan bestelako apustuak ere bazeudela gaztigatu zuen Alonsok, igandeko eskaintzari erreparatu. "Inkognita handia zen. Ostegunetik zegoen jendea nekatua egonen zela pentsatzen genuen, etxerantz joanen zela. Familiak etortzeko eskaintza zegoen. Ez genekien funtzionatuko zuen eta erantzuna itzela izan zen. Oso pozik egoteko modukoa. Akabera bikaina eman zitzaion jaialdiari".

Nahia

20. jaialdia azkena izatea nahi lukete Agirrezabalek eta Alonsok. "Ez antolatzeke euskal preso politikoak, iheslariak eta deportatuak etxean bizirik eta aske egon ahal izatea. Ikusten dugu beste Hatortxu Rock-en bat antolatu beharko dugula. Oraindik ere 320 euskal preso politiko inguru daude eta ehunka dira, oraindik ere, deserritik etxera itzuli ezin direnak. Behar hori dagoen bitartean gu indarrez gaude. Gu erronka erraldoi horretatik indarrez eta ilusioz atera gara proiektu honekin segitzeko azken presoa, azken iheslaria eta azken deportatua etxean izan arte".

"PRESOEN ALDEKO BORROKAN ILUSIOA BERRESKURATZEKO GURE ALETXOA JARRI DUGU"

Hatortxukoek piztu zuten festen hasierako etxajua

Larunbatz geroztik atzora arte festetan izan dira lakuntzarrak eta hara hurbildu diren asko eta asko

LAKUNTZA

Hatortxu Rock-eko ordezkari Endika Alonso eta Aitor Agirrezabal izan ziren festei hasiera eman zion etxajua piztu zutenak. Lakuntzako Udalak el-

kartasun jaialdian izan ziren 20.000 pertsonetatik goraren jarrera goraiatu nahi izan du horrela. Baita hura antolatzeke auzolanetan parte hartu duten lakuntzarren lana aitortu ere.

Agirrezabalek lakuntzarrek emandako laguntza eskertu ondoren piztu zuen etxajua. Ondoren, 2016an jaiotako 24 umeei zapi bana jarri zieten eta kartel lehiaketako sarituek euren sariak jaso zituzten. Hona hirukoa: Munia El Marhoum, Aiora Larraza eta Laida Gartziandia. Erraldoi eta buruhandien konpartsak kalejira zabaltzeko aurretik emakumezko erraldoia jartzen jarraitu du, "festetan emakumei bere lekua emateko".



Aurreko urtean jaiotako haurrei zapia banatu zitzairen. GUAIXE



Txiribulo udal haur eskolaren mustutzean izan ziren agintari, guraso eta herritarren talde argazkia.

Txiribulo haur eskola prest

Umeek Altsasuko udal haur eskola berria asteartean mustuko dute. Maria Solana hezkuntza kontseilaria, Nafarroako Parlamentuko hezkuntza batzordeko eta udaleko ordezkariak presente zeudela erakunde mustutzea egin zen atzo

ALTSASU
Asteartea, 07:30etik 16:30era arteko zerbitzua eskainiz zabalduko ditu ateak Altsasuko udal haur-eskolak. Astegunetan eskainik du zerbitzua. Baina ohikoa denez, umeak inguru berri-egokitzeko prozesua izanena da hasieran. Ordu batekoa izanena da hasieran eta pixkanaka haur eskolako egonaldia luzatzen joanen dira. Oraindik izena emateko aukera badago. Plaza bakarra dago libre, 6 edo 7 ordukoa. Interesa duenak Altsasuko kaleko 24. zenbakitik pasatu besterik ez du egin behar.

2015eko irailaren 3ko sutearen ondoren egindako proiektuak 6 unitate eta 900.000 euroko aurrekontua zuen. Baina, Hezkuntza Departamentuak Altsasuko azken 10 urteetako jaiotzak eta matrikulazioak kontuan izanik, lau unitateko haur eskola egitea

egokiena litzatekeela adierazi zuten. Txiribulo berriak 1-2 urteko umeendako unitate bat izanen du, 2-3 urteetakoendako beste bat, unitate misto bat, bularreko umeendako unitatea eta jangela ditu. Azken hori eta sehasken gelak dira haur eskola berriaren zerbitzuaren beritasunak. Adinaren arabera banatutako hiru unitaterekin eta lau langilerekin hasiko du bere martxa asteartean, nahiz eta hiru hezitzaileak eta zuzendaria gaur bertan hasi diren.

Lanetarako Hezkuntza Departamentuak 250.000 euroko diru

"GURETAKO OSO EGUN POLITA DA. BETI PENTSATU DUGU HAU IZATEA ETA, LORTU DUGU!"

-laguntza eman dio udalari. Suteagatik aseguru etxetik udalak jasotakotik 285.270 euro lan horietara bideratu ditu. Diruzaintzako poltsatik dirua jarri zuen udalak 350.000 euro inguruko inbertsioa egiteko. Eskola altzariekin janzteko 72.000 euro jarri zituen udalak, baina diru-laguntza jaso du horretarako ere.

Langileak

"Guretako oso egun polita da. Beti pentsatu dugu hau izatea eta, lortu dugu," aitortu zigun atzo Rosa Goikoetxea Imaz haur eskolako hezitzaileak. Udal zerbitzua zazpi egoitzetan egon ondoren haiendako bakarrik zen behin betiko tokiarekin poz-pozik zegoen.

Behin-behineko moduluen erreberritan egoera "oso gogorra" izan zela gogoratu zuen Goikoe-

txeak. "Eskerrak egoteko tokia utzi ziguten: lehenik, ludotekan eta, ondoren, gaztetxokoan". Azken horretan, "dena egokitu zuten eta nahiko ongi egon gara. Txikia zen baina ondo moldatu gara". Pixkanaka gauzak argitzen joan zirela eta gurasoen laguntzarekin haur eskola lortu dutela gaineratu zuen, alkateak egindako lana nabarmenduz. Hala ere, udalarekin izandako harremanean denetarik izan dutela gaineratu du.

Adierazpenak

Maria Solanak hezkuntza kontseilariak esan zuen halako mustutzeak "albiste on-onak" direla, "aspalditik behar-beharrezkoa zen berme osoa emanen zigun haur eskola bat izatea Altsasun. Urteetan, hamaika arrazoirengatik, ezin izan da lortu. Uste dut Nafarroako Gobernuak Altsasarekin aspalditik zorra zuela, urtetan ezin izan baitu zerbitzu hori bermatu". Txiribulo berria udalaren eta gobernuaren elkarlanaren fruitu dela nabarmendu zuen.

Halako eskolek ematen duten zerbitzua azpimarratu zuen Solanak: "gainontzeko guztia gartzen laguntzen dute. Inportantea da kontziliaziorako; jendea toki batean bizitzeko erabakitze-ko; lan merkatuari begira... Hortaz, apustua estrategikoa da, ez soilik hezkuntzari dagokionez". Departamentuan argi dute 0-3 zikloak lagundu behar duela. Gaur egun udal askok haur eskolen ardura dute, baita beste batzuen Hezkuntza eta Ongizate Departamentuek. "Mapa nahiko banatuta dago. Badakit Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hausnarketa egin eta proposamen batzuk egin direla 0-3a berrantolatze aldera. Guretako hezkuntza etapa bat da, zalantzarik gabe. Horren arabera landu bideratu nahi ditugu ditugun baliabideak".

Javier Olló Martínez pozik zegoen atzo, "azkenean mustu ditugu Txiribulo udal haur eskolaren instalazio berriak. Urte asko pasa dira, tramite asko egin dira, azkeneko bi ur-

"ALKATE GUZTIEK EGIN NAHI IZAN ZUTEN PROIEKTUA IZAN DA ETA, AZKENEAN, 2017AN LORTU DUGU"

teetan batez ere, baina aurretik ere. Alkate asko pasa dira eta hau izan da beti guztiek egin nahi izan zuten proiektua eta, azkenean, 2017an lortu dugu".

Sutearen ondorioz udalean "zerbait egiteko garai aproposa" zela ikusi zutela azaldu du Ollók. Oduko hezkuntza kontseilari Jose Luis Mendozarekin harremana "oso ona" izan zela aitortu du alkateak. Antzekoa langileekin. "Ongi ikusi dute udalak nola lan egin duen sutea gertatu zenetik gaur egun arte".

Sutearen eta mustutzearen artean Txiribulo gazte gunean hartu zuen egoitza eta, horretarako, moldaketa batzuk egin behar izan ziren Intxostiapuntan. Ollók jakinarazi digunez, espazioa Gazteria Zerbitzura buelatuko da. Horregatik, eraikina lehengoratu egingen da eta lan horiek udaleko lantaldeak egingen du. Haur eskola hartzen duen eraikinak bigarren solairu bat badu eta alkateak azaldu duenez, "kolektibo edo elkarte asko daude eta askok udal instalazioaren bat eskatzen dute euren jardura aurrera eramateko. Nik uste dut horretarako toki aproposena hori dela. Hori bai, epe ertain edo luzera, inbertsio handia izanen delako". Azkenik, Ollók jakinarazi digu urtea despeditu aurretik haur eskolaren eta auzobide kalearen artean dagoen espazioan plaza bat egonen dela.

Arbizu eta Irurtzun

Haur eta Lehen Hezkuntzako ziklo osoa hartzeko eskola berriko lanak udazkenean hasiko dira Arbizun. Lan horrek "aspaldiko behar" bati erantzuten diola azaldu du kontseilariak.

Departamentuan, beharrak ikusita, "premiazkoenak zein diren ikusi eta horren arabera ekiten dugu". Departamentuaren lehentasun horietan Irurtzungoa "nahiko goian" dago, hala jakinarazi zuen Solanak. Izan ere, Atakondoa eskola txiki gelditu da: 2010-2011 ikasturtetik moduluak daude, 0-3 urte bitarteko zikloa eskaini nahi dute eta horrekin batera, DBH osoa ere, gaur egun DBHko 2. maila eta gero Iruñera joan behar baitute ikasleek. Kontseilariak jakinarazi zuen udalarekin elkarlanean ari direla. Datarik zehaztu ez bazuen ere, esan zuenez, "nahiko genuke berandu baino lehen horri heldu".



Ardi-moztaileen txapelketaren une bat. GUAIXE

Artzaintza biziaren aldarrikapen festak mende erdia bete du

Artzainen eta euren lanaren gorazarre festa hartu zuen 50. aldiz Uharte Arakilek igandean.

UHARTE ARAKIL

Beste behin ere, Artzain Eguna jendetza erakarri zuen Uharte Arakileren. Gazta lehiaketan sekula baino parte-hartzaile gehiago izan ziren. 32. Epaimahaiak Eulateko Felipe Agirreren gazta saritu zuen, 2011n bezala. Sari banaketaren ondoren gazta erdiaren enkantea egin zen. Bost izan ziren euren eskaintzak egin zituztenak: Alhambra, Lakita, El Canalla, Baserri berri eta Pompaelo. Azken hori, Iruñean aurten zabalduzako hotel bat da, eta berak eskuratu zuen gazta erdia 4.500 euro pagatu ondoren.

Mende erdiko edizioan artzain txakurren proban zortzi artzainek 11 txakur gidatu zituzten. Lehiaketaren historian bigarren aldiz euria egin zuen hasieran, gero eguzkia atera bazen ere. Eguraldiak publiko asko biltzea eragotzi zuen. Baina batzuk animatu ziren gazta "harrapatzen".

Omenaldiak

Artzaintzaren aldeko ospakizunak mende erdiko ibilbidea egiteko ezinbestekoa uhartear askoren lana. Aurten antolakuntzaren karga handia lantalde baten esku utzi duen Jose Mari Ustarrozek jaso zuen merezitako aitortza. Gazta txapelketako 36 edizioetatik bakarrean huts egin du Iruñeko Alhambra jabetzeko Iñaki Idoatek eta egin dako ekarpenagatik txapela jarri zioten. Lehiaketa horren antolakuntza eta aurreneko edizioan lagundu zuten Mixel Aire urepeldarra eta Mixel Le-

kuona ere omendu zituzten eguerdian. Orduan, eta deitu dituzten guztietan, epaile gisa aritu diren Hartza Sueskun ahizpendako eta haien anaia Fernandorendako aipamena ere izan zen.

Omenduen artean zeuden Miguel Anjel Arbeloa Iriarte uhartearra, antolakuntza lagundu zuena eta Jose Mari Uharte Alfarero aholkularia eta Aralar Mendi elkarteak bestelako jardunak antolatzen animatu zituena. Gogoan izan zuten Jose Manuel Goikoetxea Askorbe altsasuarrrak, foru parlamentaria eta Eusko Jaurlaritzako kontseilari izandakoak emandako laguntza ere. Ardiki lehiaketan hainbatetan parte hartu zuen Julian Lizarraga Larraza dorrobarrak ere ez zuten ahaztu.

Arratsaldean, artzain txakurren trebezia probaren erdian etena egin zuten eta beste omenaldi batzuk egin zituzten. Batetik, Benito Orbegozo, Geinbera zelaiaren jabea omendu zuten. Urtero zelai horretan proba jokatzearren truke utzi zuen lursaila. Aurten hil eta 1974an probako txapelidun izan zen Santos Fernandez gogoan izan zuten. Baita inoiz irabazle izan diren Ricardo Goikoetxeak, Jose Lakuntzak, Pedro Ansak, Antonio Alustizak, Josetxo Billabonak, Jorge Oteizak eta Joxe Mari Ixtillarrek oroigarri bana jaso zuten. Uharte Arakilgo Udalarirenekin ere aitortza egin zion antolakuntzak, bera izan baitzen aurreneko edizioa antolatu zuena.

36. Gazta txapelketa, sariak

Gazta	Gaztagilea	Herria
1. Arnotegi	Felipe Agirre	Eulate
2. Remiro	Ricardo Remiro	Eulate
3. infernuko gazta	Kortariko gasnategia	Elizondo
4. Antsoenea	SAT Antsoenea	Uztegi
5. Atekoa	Anjel Linzoin	Iragi
6. Gorritz	Jose Javier Sestorain	Leitza
7. Etxepiopia	M ^a Jesus Larretxea	Elizondo
8. Albi	Campion eta Ganboa	Arruazu
9. Agirre	Agirre anaiak	Aranaratxe
10. Larregoiko	Victoriano Agirre	Eulate

50. Artzai txakur lehiaketa

Txakurra	Jabea	Puntuazioa
1. Jai	Antonio Alustiza	312 puntu
2. Lagun	Joxe Mari Ixtillarre	273 puntu
3. Arakil	Jorge Oteiza	237 puntu
4. Itur	Joxe Lakuntza	108 puntu
5. Bizkor	Joxe Mari Ixtillarre	80 puntu
6. Bay	Antonio Alustiza	54 puntu
7. Argi	Antonio Uharte	53 puntu
8. Neska	Jexux Razkin	42 puntu
9. Sua	Aritz Ganboa	38 puntu
10. Lista	Antonio Uharte	19 puntu
11. Kati	Javier Fernandez	5 puntu

Euskal artzain txakur onena

1. Argi, Antonio Uharterena

2. Lagun, Joxe Mari Ixtillarrena

Hobekien jantzitako artzaina

Joxe Lakuntza

XXX. Nafarroako ardi-moztaileen txapelketa

Partehartzailea	Herria	Puntuak
1. Carlos Sorrosal	Medina de Aragon	34,25 puntu
2. Luis Sorrosal	Medina de Aragon	35,06 puntu
3. Pablo Iturbide	Aldunate	35,86 puntu

23. Ardiki lehiaketa

Txapeliduna: Gure Etxea elkarte, Etxarri Aranatz

Parte-hartzaileak alfabetikoki sailkatuta:

Aralar Mendi (Uharte Arakil)

Catering Zubillaga (Egozkue)

Gazteluleku (Iruña)

Txapel Azpi (Irañeta)



Artisauak postua atontzen. GUAIXE



Joaldunen hilara kalean gora. GUAIXE



Euskal artzai txakurra. GUAIXE

XXXIV. Latxa ardien esne ekoizpen txapelketa*

Bi urte baino gehiagoko arpeltzak

Ekoizlea	Litroak
1. Josu Olo, Goldaratz	387 litro
2. S.I. Marco Garces. Marengo, Isaba	376 litro
3. S.C. Irigoien Rekarte, Arizkun	369 litro

Bi urte baino gehiagoko burugorriak

1. Juan Jose Irungarai, Azpilikueta	497 litro
2. Manuel Bengoetxea, Urdazubi	474 litro
3. Mari Jose Etxebarria, Lekaroz	474 litro

Bi urte baino gutxiagoko arpeltzak

1. Josu Olo, Goldaratz	298 litro
2. S.C. Ezkurra, Izurdiaga	266 litro
3. S.C. Irigoien Rekarte, Arizkun	236 litro

Bi urte baino gutxiagoko burugorriak

1. Manuel Bengoetxea, Urdazubi	418 litro
2. Xabier Zelaia, Altsasu	377 litro
3. Juan Jose Irungarai, Azpilikueta	365 litro

*Esnealdia, 120 egunetan.



Txakur hazitegi bateko kideak, euskal artzai txakur arrazako bi adarretako txakurrekin (Gorbeikoa eta lletsua). GUAIXE



Nafarroako ardi-moztaileen txapelketaren une bat, moztutakoa zakuetan sartzen pisatzeko. GUAIXE

XXXIV. Latxa ardiaren lehiaketa morfologikoa

Ardi helduen taldea

Arpeltzak

Artzaina	Herria
1. Jose Anjel Azpiroz	Beuntza
2. Eugenia Bazterrika	Olatzagutia
3. Marta Lopez Loperena	Egozkue

Burugorriak

Artzaina	Herria
1. S.C. Balda Artola	Unanu
2. S.C. Lopez Azpilikueta	Lezaun
3. Ramon Urrutia	Azpilikueta

Arkumeen taldea

Arpeltzak

Artzaina	Herria
1. S.C. Irigoien Rekarte	Arizkun
2. Marta Perez Loperena	Egozkue
3. Josu Olo	Goldaratz

Burugorriak

Artzaina	Herria
1. S.C. Lopez Azpilikueta	Lezaun
2. Isidro Bazterrika	Ituren
3. Ramon Urrutia	Azpilikueta

Ustiategiarendako sari berezia: S.C. Lopez Azpilikueta, Lezaun

Ekintzailearendako epaimahaiaren aipamen berezia: Roberto Urrutia, Artaiz.



Txapelketa desberdinetako sarituek familia argazkia atera zuten. GUAIXE

IHABARKO FESTAK

OSTIRALA 1

19:00 Txupinazoa trikitilariak alaituta.

19:30 Apustua.
Andoni Jaka – Egoitz Carrion.

20:30-22:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.

22:00 Herri afaria.

01:00-05:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin.

05:00 Ingurutxo eta tapia gainera jota.

LARUNBATA 2

13:00 Zumba.
Otamena.

14:00 Kaldereteak.

18:00 Txep eta Lagunak Pirata-kalejiran.

20:00-22:00 Dantzaldia. Alaiki taldearekin.

22:00 Herri afaria.

01:00-04:30 Dantzaldia Alaiki taldearekin.

04:30 Ingurutxo eta tapia gainera jota.

19:00 Dantza-ikuskizuna Fusioak, Aukeran dantza taldea, Foru plazan.

20:30 Abiba Diskojaia.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa. Kultur etxean hasi, eta Gernika parkean despedituko da.

00:30-05:00 Abiba Diskojaia.

IGANDEA 3

12:00 Meza
Donezteberen omenez.

13:00 Otamena.
Mikel Huariz.

14:30 Ihabarko ingurutxo.

14:45 Herri argazkia.

17:00 Mus txapelketa.

18:00 Ginkana.

20:00-22:00 Dantzaldia. Modestorekin.

22:00 Zezensuzkoa.

23:00 Parrilada.

23:30 Got talent.
Lehiaketa-ikuskizuna.

ASTELEHENA 4

11:00 Haurrendako jolasak.

13:00 Otamena.

14:30 Paella-jana.
Ondoren, bingoa eta festetako sarien banaketa.

16:00-20:00 Puzgarriak.

18:00 Txokolate-jana,
buruhandiak eta mozarroak.

20:00-23:00 Dantzaldia. Modestorekin.

23:00 Txistorra-jana.
Ondoren gaupasa elkartean.

Luisitok piztuko du Ziordiko festen hasiera-etxajua

Ziordiko festak heldu den asteazkenean hasi eta domekara arte zerekin gozatu izanen da.

ZIORDIA

Ohienez, festa batzordeak antolatu du egitaraua, adin guztietako ziordiarrek gogoan. Horregatik, bost egunetan antolatutako ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatu dute. Festari hasiera emateko Luis Gonzalezek, Luisitok, piztuko du etxajua. Trafiko istripu larri baten ondoren egiten ari den errehabilitazio lanari aitortza egin nahi dio udalak. Patxi Bengoetxea alkateak azaldu duenez, "bai berari bai bere familia osoari indarra eman nahi diogu aurre-

ra jarrai dezaten egoera hobetzeko egiten ari diren borrokan".

ASTEAZKENA 6

14:00 Herri bazkaria (Gaztetxeak antolatuta).

19:00 Txupinazoa (trikitilari eta buru handiekin girotuta).

19:00 Dantzaldia (gazteek prestatutako koreografiekin).

19:00 Auzatea.

20:00 Trikipoteoa

21:30 Herri-afaria, Karlos Aranadak girotua.

Sustrai Eguneko ospakizunak bihar

San Bartolome ermitaren inguruan bazkaldu eta iluntzean festak herrian segituko du

UHARTE ARAKIL

Inguruetak herriek basoan erromeria zutela eta Uharre Arakilen halakorik ez zela, festa egutegian hutsune hori betetzeko sortu zen Sustrai Eguna 2015ean, herriko ondarea ezagutarazte ere helburu duena. Ospakizunaren hirugarren edizioa izanen da biharkoa. Eguerdian piztuko dute etxajua eta kalejiran herrian buelta eman ondoren, San Bartolome ermitarantz joko dute, musika lagun. Andia magalean dagoen ermitaren ondoan bazkalduko dute 14:30ean. Eta, ondoren, guztiek jolasetan parte hartzeko aukera izanen dute. 20:00etan ekinen diote herriko bideari eta behin herrian, 23:30ean Saint Bartolomius Warriots taldearen kontzertua izanen da. Herriko musikariek egunerako propio sortutako taldea da azken hori. Joan den urtean aritu ziren estreinakoz.

Autodefentsa feminista ikastaroa festen aurretik

Heldu den asteburuan izanen da. Izena emateko: 948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net

ALTSASU

Altsasuko Udalaren Emakume eta Berdintasun Batzordeak, Altsasu mugimendu feministarekin batera, autodefentsa feminista tailerra antolatu du. Jarduera hori *Altsasu, erasorik gabeko festen alde* kanpainaren barruan dago.

Zortzi orduko iraupena duen tailerra bi egunetan egingen da: irailaren 8an, 17:00etatik 21:00etara, eta 9an, 10:00etatik 14:00etara. Garbitokia eraikinean izanen da ikastaroa eta Alazne Sola Latasak eta Saioa Arregi Olivenzak emanen dute.

Eraso sexistak prebenitzea eta emakume eta nesken ahalduntzea bultzatzea ditu helburu tailerrak. Edozein emakumeri zuzenduta izan arren, udaletik eta mugimendu feministatik bereziki emakume gazteak parte hartzera gonbidatu dituzte, "haiek direlako festen protagonistak".

23:00 Txof zirkoa (argi ikuskizuna eta piroteknia).

00:00-02:00 Tzumari dj.

OSTEGUNA 7

HAURREN EGUNA

11:30-13:30 Haurrendako jolas-parkea, Jokulandia

14:30 Haurren bazkaria elkartean.

17:00-19:00 Haurrendako jolas-parkea, Jokulandia.

18:00 Haurren eta motorren lasterketa (motorrak 3 urtetik beherakoendako, haur bakoitzak bere motorra eraman beharko du).

19:00 Txof zirkoa.

20:00 Japoniar bonbak.

20:00 Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa.

20:00-22:00 Tzumari dj.

22:00 Zezensuzkoa

00:00-02:30 Tzumari dj.

Garagardo azokak kokapen berria mustu du

Zubetia plazatik Baratzekobidekora pasa dira. Domekara arte 16 garagardo dasta daitezke

ALTSASU

Zubiondo elkarteak antolatutako garagardo azokak atzo zabaldu zituen ateak. Kokapen berria, gainera: Baratzekobide plazan. Arkaitz Floresek esan digunez, "aurreko karpa txikia gelditzen zitzaigun. Handiagoa jartzeko tokiz aldatu dugu. Eta kokapen berria herri erdian dagoenez, jendearendako garagardo azokara etortzea erosogoa izanen da". 200 m2 gehiago ditu karpak, guztira 400 m2.

Handik pasatzen denak iturriko edo botilako 16 garagardo dastatzeko aukera izanen du. Haietako bat berria. Gainera, txerri-ukondoarekin batera, patatak, saltxitxak, oilaskoa eta hanburgesak jateko aukera izanen da. Azken biak aurtengo menuko berritasunak dira. Azoka gaur eta bihar 19:00etan zabaldu eta 03:00etaraino izanen da zabalik. Domekan, berriz, 19:00etatik 00:00etara.



Otadiko Kristo Deuna Torneoa, ate joka

PILOTA Larunbatean, 22:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan lehen finalerdia jokatu da eta irailaren 9an, bigarrena. Nobedade moduan, Huarte Iruñea, Irurtzun, Oberena eta Doneztebeko klubak arteko txapelketa izango da aurtengoa

Berrikuntzekin dator Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako Otadiko Kristo Deuna Torneoa. Orain arte klub ezberdinetako pilotariak lehiatzen ziren. Aurten, ordea, formatu berriaren alde egin du antolakuntzak, eta lau klubak arteko txapelketa izango da bihar jokoan jarriko dena. Afizionatuen mailako torneo ezagun honek aurten XLVIII. edizioa izango du eta bi finalerdi eta final handia jokatu dira.

Lau klubak arteko torneo

Esan dugun bezala, SDAk lau pilota klub aukeratu ditu Altsasuko torneoarako: Huarte Iruñea, Irurtzun, Oberena eta Doneztebe. Bihar, larunbatean, lehen finalerdia jokatu da, eta Huarte eta Irurtzun lehiatu dira, hiru modalitateetan: lau t'erdian, buruz buru eta binaka.

Hurrengo finalerdian, irailaren 9an, Oberena eta Doneztebe ariko dira, modalitate berberetan.



Pasaden urteko txapeldunak. GUAIXE

HUARTE, IRURTZUN, OBERENA ETA DONEZTEBE KLUBAK LEHIATUKO DIRA ALTSASUN

Eta finalerdietako bi talde onenek final handia irailaren 15ean jokatu dute, Altsasuko festetako ostiralean. Aipatzekoa da jaialdiak zabalitzeko Altsasuko Pilota Eskolako pilotarien arteko partidak jokatu direla.



NAFARROAKO IRRISTAKETA FEDERAZIOA

Ioseba Fernandez Mundialetan

IRRIKAKETA Irailaren 10era bitartean Txinako Nanjing hirian World Roller Games, irristaketa mundialak hartuko ditu. 50 federazioko 4.000 kirolarik hartuko du parte guztira. Tartean dago Ioseba Fernandez iturmendiarra. "Ongi entrenatu dut, nire ibilbideko une hoberenetako batean iritsi naiz Txinara eta konfiantzarekin nago" adierazi du.

Iban Resano Euskal Herriko 3. Mailako finalera

AIZKORA Lakuntzan jokatu zen EHko 3. Mailako Aizkora Txapelketako bigarren kanporaketa, igandean

Igandean Euskal Herriko 3. Mailako Aizkora Txapelketako finalerako bigarren kanporaketa jokatu zen Lakuntzan. Goraino bete ziren Lakuntzako frontoiko harmailak.

Lehenengo txandan Iban Resano dorrobarra aritu zen. Bera izan zen, hain zuzen ere, bere txandako azkarrena eta bigarren kanporaketa honetako irabazlea. Goizeder Beltza etxarriarra, Rodriguez I.a eta Kintana sailkatu ziren atzetik. Bigarren txandan, aldiz, Pellejero nagusi zen, Telletxearen, Otaegiren eta Olasagastiren aurretik. Eta, hirugarren txandan Rodriguez II.a gailendu zen, Naredoren eta Esnalaren aurretik.

Iban Resanok irabazi zuen Lakuntzako kanporaketa (9:59), Pellejeroaren (10:45) eta Telletxearen (10:52) aurretik. Hirurek lortu dute Euskal Herriko 3.

Mailako finalerako sailkatzea, lehen kanporaketan sailkatutako Alkizaletre II. arekin, Txapartegirekin eta Kortxerorekin batera. Atzetik, Rodriguez II.a (11:06), Goizeder Beltza (11:14), Otaegi II.a (11:32), Rodriguez I.a (12:11), Kintana (12:53), Naredo (12:58), Olasagasti (13:16) eta Esnal (13:36) sailkatu ziren.

Resano eta Beltza, Nafarroako II. Mailako finalera

Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa Eneko Saralegik irabazi zuen, eta berarekin batera Iban Resano dorrobarrak, Kañamare IV.ak, Telletxeak eta Goizeder Beltza etxarriarrak lortu zuten finalerako sailkatzea.

Bestalde, Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketa Jexux Etzeberriak irabazi zuen. Iker Gorriti 5.a sailkatu zen.

K desafio Asperendako

Astelehen gauean K Pilota txakolinaren desafioa jokatu zen Donostian. Aspek lortu zituen jokoan zeuden Karlos Argiñanoren 600 txakolin botilak.

Buruz buru, Erik Jakak 19 eta 22 irabazi zion Unai Lasori. Asegarcek berdintzea lortu zuen, Bengoetxea VI.ak eta Urrutikoetxeak 22 eta 13 irabazi baitzieten Altuna III. ari eta Irribarriari. Lau t'erdian, Joseba Ezkurdiak Victor zuen aurkari eta arbiuarrak lortu zuen partida eta desafioa irabaztea (11 eta 22).



Bakaikoa, Anboto taldeko kideekin. Bizkaiko Torneoa irabazi dute. ASEGARCE

Bakaikoaren Anboto, txapelduna

Aurreko astean Bizkaia Torneoko finala jokatu zen. Asegarceko Anboto taldeak Aspek Gorbea zuen aurkari 3 partidatan. Tartean, buruz buru, Joanes Bakaikoa etxarriarrak 22 eta 14 irabazi zion Jaunarenari. 3 partidatik 2 irabazita, Anbotok irabazi zuen Torneoa.

Osasuna Magna denboraldian murgildua

ARETO FUTBOLA Talde berdeak Bynho, Edu eta Alex jokalar berriak aurkeztu zituen abuztuan eta Imanol Arregi entrenatzaileak hiru urte gehiagorako sinatu du Xota klubarekin. Bestalde, Nafarroako Kopako finala jokatzeke sailkatu da kluba

Aurten Osasuna Magna izena hartuko du Xota klubak. Aurreko urteko denboraldi bikainari segida emateko bidean, agorri-laren 14an hiru jokalar berriren aurkezpena egin zuten: Bynho, Alex Llamas eta Edu Sousa.

Imanol Arregi entrenatzaileak aipatu zuenez, Bynho “oso jokalar azkarra da, mugikortasun handikoa. Gaztea da, baina Brasilgo ligan lan ona egin duena. Abilezia handikoa, orain arte ez dugu izan bera bezalako perfila duen jokalaririk eta oso ongi etorriko zaigu”. Bynhok esker oneko hitzak izan zituen: “oso pozik nago, lan ona egiteko goz. Talde honetan ahalik eta urrunera iristea espero dut”.

Alex Llamas Kataluniatik dator eta 18 urte ditu. “Alex gaztea da eta taldeko erritmora eta mailara egokitzea da dagokiona. Etorkizunean asko emango duen jokalaria izango dela uste dut” azaldu zuen Imanolek. Alexek talde berdeak berarekin izan zuen konfiantza eskertu zuen. “Esperientzia hartzea, hori da kontua, eta ditudan minutuak aprobetxatzea” aipatu zuen.

Bukatzeke, Edu Sousa taldeko atezain berria izango da. “Asier atezainaren ondoan asko ikasi dezakedala uste dut. Hobetzea, hori da nahi dudana, eta gutxi-ka minutuak lortzea” aipatu zuen Sousak. Horrela, Jesulito, Yoshikawa eta Raulen bajak osatu ditu taldeak. Asier, Araça, Rafa Usin, Roberto Martil, Dani Saldise eta Javi Eserverri dira taldeko ezinbesteko jokalariek.

Aurrendenboraldia

Egun, Osasuna Magna aurrendenboraldian murgilduta dago. Orain arte jokatutakoetan, hiruna berdindu zuen Catgas Energia taldearekin eta bina Rios Renovables Zaragozarekin eta larunbatean lehendabiziko garaipena lortu zuen, Segovia Futsalen kontra (2 eta 3). Gaur,



Imanol Arregirekin batera hiru fitxaketa berriak agertzen dira argazkian. GUAIXE

IMANOL ARREGIK ETA MIGEL HERNANDEZEK HIRU URTE GEHIAGO JARRAITUKO DUTE OSASUNA MAGNAN

ostiralean, Sabadellen kontra ariko da, Sabadellen, eta larunbatean Catgas Energia izango du aurkari Manresan.

Nafarroako Kopako finalera

Asteazkenean, Orkoienen, Nafarroako Kopako finalerdia jokatuko du Osasuna Magnak eta Kirol Sportek. Berdeek garaipen erraza lortu zuten eta Eserverrik, Xabi Otxotorenak, Dani Saldisek Roberto Martilek eta Alex Llamasek (2) sartutako golei esker 1 eta 6 irabazita, irailaren 8an Nafarroako Kopako finala jokatuko du Osasuna Magnak, beste finalerdian San Juan 1 eta 4 irabazi zuen Aspil Vidal Ribera de Navarraren kontra.

Imanol Arregik hiru urte gehiago jarraituko du klubean

Zalantzarik gabe, Imanol Arregi entrenatzailea da Osasuna

Magnako zurtoin garrantzitsuenetako bat. Aurreko denboraldiko entrenatzailearik onena izendatu zuten Imanol, eta 17 denboraldi egin ditu Xota kluba zuzentzen. Nahiz eta hainbat eskaintza izan, etxeko taldean jarraitzearen hautua egin du irurtzundarrak, eta agorri-laren 3an hiru urteko kontratua sinatzea erabaki zuten Imanol Arregik eta Osasuna Magnak.

Ilusioarekin dagoela aitortu zuen entrenatzaileak. “Oso pozik nago, ilusionatuta. Beti bezala, lan handia egiten saiatuko gara, gure taldea ahalik eta goienean egoteko. Hastear dagoen ligarako ongi prestatu dira talde guztiak eta lehia ikusgarria espero da” nabarmendu du irurtzundarrak. Migel Hernandez bigarren entrenatzaileak Imanolen ondoan jarraituko du lanean, berak ere hiru urtetarako kontratua sinatu baitu klubarekin.

Abonuak eskuragarri

2017/2018ko abonua eskuragarri daude (Irurtzunen, 12:00etatik 14:00etara). Familia abonoak 100 euro balio ditu, helduenak 50 euro eta gazteenak eta langabetuenak, aldiz, 25 euro.



Ingenieria Iradi taldeko jokalariek. GUAIXE

Ingenieria Iradi I. Ziordiko Futbol Txapelketako txapelduna

FUTBOLA Finalean Ziordiari irabazi zion. Auzomotojorik izan zen hirugarrena eta Futsal Sakana laugarrena

Uztailaren 30ean I. Ziordiko Futbol Txapelketako finalak jokatuko ziren. Giro polita eta ikusle ugari bildu ziren finalaz gozatzerako. Ziordikoa elkartasunezko txapelketa zenez, Dravet sindromea duen gaztetxo batek, Anderrek, egin zuen finaleko ohorezko satea. Aipatzekoa da Dravet Fundazioko Euskadiko ordezkariak Ziordiko txapelketan bildutako 485 euroak -335 euro, taldeek izena ematean jarritakoari Ziordiko Udalak gehitutako 150 euroak- jaso zituela.

Ingenieria Iradi izan da txapelduna, Ziordia taldeari final

lehiatu eta ikusgarrian 7 eta 3 irabazi eta gero.

Auzomotojorik hirugarrena eta Futsal Sakana laugarrena

3. eta 4. postua zehazteko partida Etxarri Aranazko Auzomotojorik taldekoek -festak ziren Etxarrin, eta, hala ere, jokatuko zuten- eta Irurtzongo Futsal Sakanakoek jokatuko zuten. Oso partida paretsua izan zen eta hiruna berdindu eta gero, penaltietan 3 eta 2 gailendu ziren etxarriarrak. Hortaz, Auzomotojorik izan zen hirugarrena eta Futsal Sakana laugarrena.

FUTBOLA Liga baino lehen, IMQ Kopa dago jokoan

2017/2018 denboraldiari irailaren 16an ekingo diote Preferente mailan dauden Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek. Aste bat beranduago abiatuko da, aldiz, Altsasuk jokatuko duen erregerional mailako denboraldia. Baina liga hasi baino lehen, IMQ Kopan murgilduta daude gure taldeak.

Etxarrik Barañainen jokatuko duen asteburuan, Lagunak B taldearen kontra. Biek aukerak izan zituzten, eta Etxarrik aldeko penaltia izan zuen, Barañaingo atezainak gelditu zuena. Lagunak taldeak lehenengo gola sartu zuen eta nahiz eta Etxarri Aranatz saiatu, Barañaingoak izan ziren bigarrena egin



Jokalariek kornerean lehiatzen.

zutenak. Horrela, azkenean 2 eta 0 irabazi zuen Lagunak taldeak. Bestalde, atzo Lagun Arteak Bidezarra izan zuen aurkari Orkoienen, baina erredakzioa isteko unean ez genuen emaitzaren berririk.



Maialen Aramendia, Espainiako txapeldunordea. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Maialen Aramendia Espainiako erlojupeko txapeldunordea

TXIRRINDULARITZA Josu Etxeberria 5.a sailkatu zen. Aramendia, Gonzalez, Etxeberria eta Lasa lehiatu ziren

Asteburuan Espainiako Junior Mailako Txirrindularitza Txapelketa jokatu zen Valladoliden. Nafarroako selekzioan Maialen Aramendia eta Bakarne Gonzalez sakandarrak aritu ziren. Iturmendiarrak zilarrezko domina lortu zuen erlojupekoan. "Hasierako sentsazioak ez ziren oso onak eta haize indartsuak ez zuen behar bezala ibiltzen laguntzen. Baina erritmoa hartu eta ongi ibili nintzen. Oso pozik nago" adierazi zuen Aramendiak. Gaztela eta Leongo Sara Martin izan zen txapelduna (22:32), Maialeni 37 segundo

aterata. Bakarne Gonzalez altsuarra ere pozik zegoen egindako lanarekin. 9.a sailkatu zen, 2:48ra. Lineako proban, Maialen Aramendia 15.a sailkatu zen eta Bakarne Gonzalez 41.a.

Etxeberria bosgarrena

Gizonezkoetan Josu Etxeberria iturmendiarrak eta Ailetz Lasa ziordiarra lehiatu ziren Nafarroako selekzioarekin. Etxeberria azkeneko ihesaldian sartu zen eta bosgarrena sailkatu zen. Eta erlojupekoan, Etxeberria 33.a sailkatu zen, 3:35ra, eta Ailetz Lasa 49.a, 6:53era.



Etxeberria garaipen ikusgarria lortu zuen Txoribarren. UTZITAKOIA

Iruñeko Itzuliko mendiko garailea

XXI. Iruñeko Itzuliko 2. etapa Etxarri Aranatzan jokatu zen eta Urko Senperenak irabazi zuen. 3. etapa, Txoribar gainean bukatu zena, Intersport Irabiako Josu Etxeberria irabazi zuen. Itzuliko mendiko sailkapena iturmendiarrarendako izan zen.



Lakuntzako podiumeko sarrituen argazkia: Arrieta, Astitz eta Mintegi daude tartean.

Igor Arrieta uhartearra txapelduna Lakuntzan

TXIRRINDULARITZA Sakandarrek izan zuten protagonismoa: Arrieta txapeldun, Mintegi mendiko txapelduna eta Astitz tartekako helmugan txapelduna. Opakuan eta Legarian ere Arrietak irabazi zuen, Alberdik Los Arcosen eta Mintegik Murietan

Asteartean kadeteen mailako XXVII. Sakana Fundizioa Saria jokatu zen Lakuntzan, Aralar klubak etxean antolatutakoa. Javier Gartzandia txirrindulari ohia eta Ermitagaña klubaren sorreran lan handia egin zuen zendutako Koldoren alargun Tere Lizarraga lakuntzarrak moztu zuten hasierako zinta.

Tartean botatako euri zaparradak are gehiago gogortu zuen proba. Intersport Irabiako Inhar Astitz eta Quesos Albenizko Iker Mintegi sartu ziren eguneko ihesaldian, baina Lizarragako Kateko igoeran –Mintegi pasa zen lehena katetik– Intersport Irabiako Igor Arrietak eraso jo zuen eta bakarrik egin zuen aurrera. Horrela, Uhartearrak txapeldun handia bakar-bakarrik iritsi zen txirrindulari zalez beteta zegoen Lakuntzako helmugara, etxean garaipena lortuaz (1:24:55). 23 segundora Ekin-Amorebieta taldeko Mikel Agirrebeitia sartu zen eta Madis taldeko Ibai Ruiz de

Arkaute hirugarrena, 24 segundotara.

Sakandarrek lan bikaina egin zuten. Iker Mintegi 7.a sartu zen, 52 segundora, eta mendiko txapelketa irabazi zuen altsuarrak. Aitor Alberdi (I.I.) 9.a sartu zen, Unai Aznar (Q.A.) 10.a, Unai Villalobos (Q.A.) 14.a, Urko Gorriti (I.I.) 15.a, Inhar Astitz 20.a –tartekako helmugan saria irabazi zuen– eta El Caserio-Valsay taldean dabilen Jon Gil lakuntzarra 25.a. Lehen lakuntzarraren saria berarendako izan zen. Emakumezko bakarra sailkatu zen, Nafarroa-Ermitagañako Irati Puigdefabre.

Taldeka, Ekin-Amorebieta izan zen lehena, Intersport Irabia eta Quesos Albeniz taldeen aurretik.

KADETEEN MAILAN ARALAR ETA BURUNDAKO TXIRRINDULARIAK DIRA NAGUSI

Eta proba Nafar Kirol Jolasetarako puntuagarria zenez, Igor Arrietak liderraren maillot gorria jantzi zuen eta Iker Mintegik mendiko maillot berdea.

Arrietaren, Alberdiren eta Mintegiren garaipenak

Udan beste bi garaipen lortu ditu Igor Arrietak. Agorriaren 12an Legariako lasterketa irabazi zuen, Quesos Albenizko Unai Aznarrekin borroka estua izan eta gero. Iker Mintegik mendiko saria eta tarteko helmugan saria irabazi zituen eta Irabia izan zen talderik onena. Hurrengo egunean Opakuako Igoera erlojupekoa irabazi zuen Arrietak (21:44), Unai Aznarren aurretik (21:58). Iker Mintegi izan zen hirugarrena (22:34).

Agorriaren 18ko Los Arcosoko proba Aitor Alberdik (I.I.) irabazi zuen eta larunbatean, Murietan, Iker Mintegi izan zen txapelduna eta Urko Gorriti bigarrena. Quesos Albenizek talde onenaren saria jaso zuen.

I. Irurtzun-Arakil Rallysprinta: Lopez 4.a

AUTOMOBILISMOA Olaztiko pilotua eta Javier Fernandez kopilotua laugarrenak sailkatu ziren probako sailkapen orokorrean

Ikusmin handia piztu zuen agorilaren 5ean jokaturako I. Irurtzun-Arakil Rallysprintak eta zaletu asko bildu ziren Sakana Motorsport Eskuderiak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatutako proba jarraitzera.

Euri fina

Irurtzongo plaza izan zen probako hasierako gunea, bertan bildu baitziren proban parte hartu zuten ibilgailuak. Autoek antolakuntzak zehaztutako 12,5 km-ko ibilbidea hirutan osatu behar izan zuten, 37,8 km osatuz. Euri fina egin zuen hasieran eta, zein gurgil aukeratu, buruhauste ederra izan zuten pilotu eta kopilotuek.

Lopez de Goikoetxea eta Fernandez, Formula Librean hirugarrenak

20 autok lortu zuten I. Irurtzun-Arakil Rallysprinta despeditzea. Azkarrenak Mattin Villares eta Andoni Blas izan ziren (Clio Maxi, 22:29), autoa bikain gidatu eta gero. Sakana Motorsporteko Iban Lopez de Goikoetxea pilotu olaztiarrak eta Javier Fernandezek lan ederra egin zuten eta sailkapen orokorrean laugarrenak sailkatu ziren, euren mailan, Formula Librean,



Iban Lopez de Goikoetxea eta Javier Fernandez. UTZITAKOIA

hirugarrenak. "Hasieratik lasterketa bikaina egin genuen, eraso bizian ibili ginen" adierazi digu Olaztiko pilotuak.

Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Isaak Zurbanorekin aritu zen Iker Askargorta kopilotu olaztiarra (Kadett Gsi). Biek lan polita egin zuten eta bederatzigarrenak sailkatu ziren, euren multzoan lehenak (24:33). Aitor Fernandez kopilotu olaztiarra (Saxo VTS) eta Alberto Sanchez (Saxo VTS) 13. tokian kokatu ziren sailkapenean, euren kategorian lehenak (24:47).

Goñi eta Goikoetxea, erretiratuta

Bestalde, etxean lehiatzen zen Garikoitz Goñik eta Iñaki Arivek (Clio Sport) ez zuten zortea alde izan. Matxura izan zuten lehen ibilbidean eta erretiratu egin behar izan ziren, pena handiarekin. Berdina gertatu zitzaion Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarrari, Roland Holkerekin batera (DS3 R3T Max) proba utzi behar izan baitzuten, arazo mekanikoak tarteko. Guztira 11 taldek utzi behar izan zuten I. Irurtzun-Arakil Rallysprinta.



Mapa kontsultatzen, Sakanako orientazio proban. ARTXIBOA

Orientazioan murgiltzeko ikastaroa Olaztin

MENDIA Irailaren 5ean, asteartean, Olaztin eta irailaren 9an, larunbatarekin, Urbasan, dohainik

Nafarroa Kirol Elkarteak hainbat babeslerekin antolatuta, irailaren 9an eta 10ean Urbasa Karst orientazio proba jokatu da Urbasan, aldi berean 8. eta 9. Ipar Liga orientazio proba eta 7. eta 8. O'Pyrene Liga izango dena. Larunbatean, hiruko taldeak osatuta, errelebo txapelketa egongo da jokoan eta igandean, aldiz, bakarkako proba. Antolatzaileek 200-500 partaide inguru espero dituzte, tartean sakandarrak.

Proba hori aitzakia hartuta, eta sakandarrak orientazio probetan trebatzeari begira, Sakana Garapen Agentziak, Nafarroa Kirol Elkarteak eta Olaztiko Udalak oinarritzko orientazio ikastaroa antolatu dute hurrengo asterako Sakanan, zehazki Olaztin eta Urbasan.

Ikastaroak bi atal izanen ditu. Irailaren 5ean, asteartean, alde teorikoa landuko dute Olaztiko

Kultur Etxean, 19:00etatik 21:00etara. Orientazioa zertan datza, orientazioa kirol moduan nola lantzen den eta mapa bat nola irakurtzen den aztertuko dute, besteak beste.

Alde praktikoa irailaren 9rako, hurrengo larunbaterako utziko dute. Goizeko 11:00etatik 13:00etara orientazioaz ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izanen dute ikastaroan izena ematen dutenak, Urbasan antolatu den jarduera praktikoarekin. Aipatzekoa da ikastaroa gazteleraz izango dela.

Izena emateko

Oinarritzko orientazio ikastaroan izena emateko ondoko helbidera mezua bidali behar da: furbitarte@sakanagaratzen.com. Ikastaroa dohainik da, baina toki mugatuak daudenez, izena ematea lehenbailehen egitea gomendatzen dute antolatzaileek.

3x3 Ziordia Torneoa

SASKIBALOA Guztira 21 neska mutikok parte hartu zuten, garilaren 30ean, Ziordiko Udalak antolatutako 3x3 Ziordia Saskibalo Torneoan, 7 taldetan banatuta. Txikien mailan Imanol Ramirezek, Asier Diazek eta Javier Esterasek irabazi zuten eta handien mailan, aldiz, Atikil Arretzek, Joe Carrillok eta Joseba Solisek.



UTZITAKOIA

Larrañaga txapelduna Valle de Tena Trailean

MENDI LASTERKETAK Aran Larrañagak emakumezkoen 8 K Valle de Tena irabazi zuen, Iosu Unzurrunzaga laugarrena sailkatu zen (77 km, 6.800 m desnibel +) eta Jose Luis Beraza bosgarrena sartu zen 4 K Valle de Tena (43 km, 3.600 m desnibel +)

Asteburuan jokatu da, Pirinioetako mendi zoragarrietan, Valle de Tena Traila. Hiru distantzian lehiatu dira korrikariak. Tartean ibili dira Etxarri Aranazko Unzurrunzagatarrak eta Jose Luis Beraza eta Aran Larrañaga uhartearrak. Ibilbide gehiena 2.000 metrotik gora osatu behar izan zuten eta tartean Gamo Negro (3064 m) hiru mila-koa gainditu behar izan zuten.

Iosu Unzurrunzaga podiuma zapatzear

8 K Valle de Tena Trailean korrikariak 77 km eta 6.800 metroko desnibel + zuten aurrez-aurre korrikariak. Sergio Gimeno gailendu zen, 11 ordu eta erdi pasa eta gero (11:40:19). Aipatzekoa da Iosu Unzurrunzaga Ganboa laugarrena sailkatu zela proba zoragarria burutu eta gero (12:01:00). Podiumeko postuetan egon zen etxarriarra, baina, azkenean, ez zen posible izan.

Zer esanik ez Aran Larrañagak lortutakoa: Uharte Arakilgoak emakumezkoen proba irabazi zuen (16:07:02). Ikusgarria Larrañagak lortutakoa, ordu bat atera baitzion bigarren emakumeari, Ester Sanchez (17:07:40). Sailkapen absolutuan 39.a sailkatu zen Larrañaga, emakumezkoetan lehena. Bere bikotea,



Aran Larrañaga uhartearra, 8 K Valle de Tena podiumean. UTZITAKOIA

UNZURRUNZAGA AITA ETA BI SEMEEK, SEKULAKO MAILA EMAN ZUTEN VALLE DE TENA TRAILEAN

Patxi Rubio, berarekin sartu zen, 41. Postuan (16:07:03).

Beraza bosgarrena eta Unzurrunzagatarrak sasoian

Bestalde, 4 K Valle de Tena Trailean, distantzia laburragoan, 43

km eta 3.600 desnibel + osatu beharra zegoen. Alfredo Gil izan zen txapelduna (5:48:28). Jose Luis Beraza uhartearra bosgarrena iritsi zen helmugara (6:22:40), probako bigarren beterranoa. Aipatzekoa da ere Unzurrunzaga aita-emeak lortutakoa: Ander Unzurrunzaga Iurrebaso beterrano etxarriarra bederatzigarrena sartu zen helmugara (6:53:53) eta Ander Unzurrunzaga Ganboa semea 40.a (7:52:40). Proba luzeagoan Iosu anaiak egindakoarekin batera, albiste bitxi eta pozgarria .

Katarain Itziarren eta Comapedrosan

Beñat Katarain korrikari lakuntzarra hirugarrena sailkatu zen agorrilaren 5ean jokaturako Itziarriko Trailean. Garilaren 30ean Andorrako Arinsalen Skyrace Comapedrosan parte hartetik zetorren (21 km, 2.300 metroko desnibel positiboa), bimilako zoragarrietan. Jan Margarit Solé izan zen azkarrena (2:35:36) eta Beñat 27.a sailkatu zen (3:12:18).



Pirinioetako paraje zoragarrietan barna ibili zen Katarain. SKYRACE COMAPEDROSA



GUAIXE

Guardetxeko azkarrenak

MENDI LASTERKETAK Zabalarte klubak antolatuta, Guardetxeko igoera jokatu zen larunbatean Lakuntzan. Lakuntzako plazatik Guardetxera igotzea eta jaistea zen erronka. Luis Areta eta Alberto Martinez elkarrekin iritsi ziren helmugara, eta Luis Areta izan zen lehena. Emakumezkoetan Uxue Lazkano gailendu zen.

I. Tritoiena mendi lasterketa antolatu dute

MENDI LASTERKETAK Irailaren 9an jokatu da, Arbizuko ekokanpinean. Izena ematea zabalik dago

Mendi lasterketa berri bat dugu Sakanan: I. Tritoiena mendi lasterketa. Proba antolatzea Arbizuko Ekokanpinaren inguruan ibiltzen den talde bati bururatu zitzaion. Irailaren 9an jokatu da, larunbatearekin, goizeko 9:30ean Arbizuko ekokanpinetik abiatuta. 30 km-ko eta 1.800 metro desnibeleko proba izango da, eta, besteak beste, Beriain igo beharko dute korrikariak. Arbizuko ekokanpina, Ergoienako Udala eta Dantzaleku Sakanako Atletismo Kluba dira antolatzaileak, makina bat babesleren laguntzarekin.

Arbizuko proba solidarioa izango da. Izan ere, izena ematearen truke 13 euro ordaindu beharko dute korrikariak eta bildutakoa Down sindromea duten neska-mutirik osatutako Motxila 21 taldeari bideratuko zaio. Talde horretan Dorraoko Aintzane Lizarraga dabil.

Lizarragako tunela, Andia eta Beriain

I. Tritoiena mendi lasterketa paraje zoragarrietatik igaroko da eta Ergoienako hiru herriak zeharkatuko ditu. Arbizuko ekokanpinetik aterata, Lizarragara

joko dute korrikariak, tuneletik gora eginez, Andia mendi ertzean buelta ederra egiteko. Aitzorrotzetik jaitsita, Dorraura iritsiko dira eta handik Unanura joko dute, handik Beriain igotzeko. Beriainen, Uharte Arakilgo portutik jaitsiko dira, eta Beriain magaletik Arbizuko Ekokanpinetik bidea hartuko dute, helmugara iristeko. 30 km eta 1.800 metroko desnibeleko proba da.

Izena emateko

Lau bide daude izena emateko: inscripciones@quieroundorsal.es eposta bidez, 848 470 922 telefonora deituz, info@campingarbizu.com eposta bidez edo rockthesport.com web gunean. Gehenez ere 250 korrikari onartuko dira.

Mendi lasterketa baino zerbait gehiago izango da I. Tritoiena mendi lasterketa. Lasterketa 9:30ean abiatuko da, baina Arbizuko Ekokanpingak eguerditik aurrera azoka hartuko du. Eta sariak emateko ekitaldian omenaldia egingo zaie Unanuko Joxe Mari Mercero korrikari beterranoari eta Maitane Txueka korrikari arbizuarri.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 1

ALTSASU Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa! Hori bermatuko duen legea! Nafarroako Pentsionistak Martxanaren kontzentrazioa. Zumalakarregi plaza, 12:00etan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian, nahi izanez gero posible da. Kontzentrazioa. Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean, 19:00etan.

ALTSASU Garagardo azoka. Zubiondo Elkarateak antolatuta du azoka. Baratzakobide plazan, 19:00etatik 00:00etara.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Plazan, 20:00etan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. Udaletxe parean, 20:00etan.

LARUNBATA 2

ALTSASU Altsasutik Lazkaora 82 km-ko joan-etorria egingen du zikloturista taldeak. Baratzakobide plazako lokomotoratik, 09:30ean.

ALTSASU Ezin zailagoa, Nafarroako XVII. zirku jaialdia. Iortia zabalgunean, 18:00etatik aurrera.

ALTSASU Garagardo azoka. Zubiondo Elkarateak antolatuta du azoka. Baratzakobide plazan, 19:00etatik

03:00etara.

ZIORDIA Pool party. Txen, Anabea, Alfon, Dzergy, Atxus eta Loksea dj-ak ariko dira. Igerilekuan, 23:00etan.

UHARTE ARAKIL Saint Bartolomius Warriros, herriko musikariek osatutako taldearen kontzertua, Sustrai Egunaren barruan. 23:30ean, plazan.

IGANDEA 3

ALTSASU Altsasutik Lezamengo saroiara 46 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. Baratzeko bide plazako lokomotoratik, 09:00etan klubeko bajeatetik edo 09:45 aldera Bioitza kanpinean.

URBASA Faxismoaren kontra, oroimenaren alde. 1936ko estatu kolpearen ondoren eraildako enomezko ekitaldia antolatuta dute ibarreko udalek. Otsoportillon, 12:30ean.

ALTSASU Garagardo azoka. Zubiondo Elkarateak antolatuta du azoka. Baratzakobide plazan, 19:00etatik 00:00etara

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. Foru plazan, 20:00etan.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Nafarroako Kultura Plan Estrategikoaren diseinuan parte hartzeko bilera. Aurretik izena eman behar da Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekia atarian. Iortia kultur gunean, 11:00etan.

ASTEARTEA 5

ALTSASU Festetako herri bazkaria auzolanean antolatzeko bilera. Gure Etxea eraikina, 19:30ean.



ENNECO ARITZA

ETXARRI ARANATZ Enneco, haritzaren memoria Nafarroako Erreinuaren historian murgiltzeko aukera. Informazioa www.enneco.eus edo 663 908 306. Irailaren 3ra arte, asteartetik igandera, 11:00etatik 18:00etara.



ALTSASUKO UDALA

ALTSASU Festetako kartel erakusketa Festetako kartel lehiaketara aurkeztutako lan guztiak erakusketan ikusteko aukera izanen da. Iortia kultur gunean, agorriaren 28tik irailaren 10era, 09:00etatik 14:00etara.

ZORION AGURRAK



Aimar Lazkoz Ruiz ZORIONAK ederra! 7 urte beteko dituzu igandean. Bizkotxo haundi bat jango dugu ospatzeko, e! Muxu pila bat famili guztiaren partez.

Zorionak zure urtebetetzean

... ta urte askotarako

Argazkiak emateko lekuak: Altsasu: Foru plaza 23-1 - zorion@guaixe.eus - Ordainketa: Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: ES56 3035 0018 47 01 81012564

*Eta orain 4€ argazkiak eta Pirritx Parrotx eta Marimototsen opari papera doan! Bazkideek, 3,50€

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

LAN-ESKAINITZA

Ramos Industrial: PCL-en programatzaile baten bila gabiltza. Programatzen eta makinak martxan jartzen esperientzia eskatzen dugu. CV eskura eman bertan. Konfidentzialtasuna bermatuko da.

OHARRAK

Odol-emaileak. Arbizun: irailaren 6an, 17:00-20:30. Olaztin: irailaren 7an, 17:00-20:30

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Eplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabiltzanendako aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informa-

zio gehiago amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 5 6 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasoz.

tzera, zalandak argitzera, ekarpenak egitera...

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

Euskonews ekonomiko-ki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.com

JAIOTZAK / EZKONTZAK / HERIOTZAK

JAIOTZAK

- **Aner Barandalla Bazterretxea,** uztailaren 24an Etxarri Aranatzen.
- **Oihan Borrega Velilla,** uztailaren 27an Altsasun.
- **Miren Zelaia Lumbreras,** uztailaren 30ean Altsasun.
- **Malen Razkin Galartza,** abuztuaren 1ean Lakuntzan.
- **Xumai Lazkoz Etxebeste,** abuztuaren 4an Lakuntzan.
- **Leire Fernandes Lebron,** abuztuaren 5ean Altsasun.
- **Safae El Attaoui,** abuztuaren 22an Lakuntzan.
- **Adur Saralegi Igoa,** abuztuaren 22an Etxarri Aranatzen.
- **Oroitz Rodriguez Lacalle,** abuztuaren 26an Olaztin.


HERIOTZAK

- **Maria Zufiaurre Bakaikoa,** uztailaren 24an Altsasun.
- **Modesta Mendiluze Zelaia,** uztailaren 26an Altsasun.
- **Jose Luis Barandiaran Razkin,** uztailaren 26an Altsasun.
- **Divina Erdozia Goikoetxea,** abuztuaren 4an Bakaikun.
- **Ignacia Arratibel Agirrebengoa,** abuztuaren 21ean Altsasun.
- **Valentina Bengoetxea Bengoetxea,** abuztuaren 22an Olaztin.
- **Avelina Flores Andueza,** abuztuaren 25ean Lakuntzan.
- **Antonio Mangado Esteban,** abuztuaren 28an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..



ESKELAK



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82€ /96,80€/130,68€

prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK


- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 1




Goizean behe-hodeiak oraindik ere ugariak izango dira eta euria egin dezake. Arratsaldean egoera hobetuz joango da.

Larunbata, 2




Zerua hodei gutxirekin egongo da. Haizea iparraldetik. Arratsaldean temperatura igo egingo da.

Igandea, 3



Iganderako, larunbatean jasotako giro berdina izango dugu, temperatura 4 puntu igoko da.

Astelehena, 4



Euri zaparrada txikiak eta motzak egon daitezke. Tenperaturaren jeitsiera txiki bat antzemango dugularik.

40 aniversario **TANATORIOS IRACHE**

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Pelikularen grabaketa saioko unea Arruazuko kaleetan. @AINARAPORRONA

Arruazu Porronen "Duerme negrita" laburraren eszenatokia

Zuzendariak garileko azken astean filmatu zuen film laburra, Arruazun (hiru egun) eta Iruñean (egun bat)

ARRUAZU

Ainara Porron Arratibelen aitona ezkilak jotzen zituen Arruazuko elizan eta hala mezarako deia komunikatzen zuen. Haren iloba Ainarak, berriz, komunikatzeko zinema erabiltzen du. Eta Arruazu aukeratu du bere lana aurrera eramateko. Zehazki, garilaren 26tik 29ra herrian *Duerme negrita* lanerako filmatzen aritu zen. 30ean, berriz, Iruñeko Zapateria kalean.

Porronek ezezagunari zaion beldurra eta hezkuntzaren bidez beldurra nola galdu daitekeen azaldu nahi du bere lanarekin. Eta hori 4 urteko neskato baten begiradatik egiten du. 1987an kokatutako istorioa da film laburrekoa. Bi alaba dituen familia sakandar bat da protagonista. Ama alabetako batekin Iruñera erosketak egitera joanen da. Neskatoak orduan, estreinako aldiz, gizon beltz bat ikusiko du eta asko izutuko da. Gurasoek popin beltza erosi eta oparitu egingen diote eta "beldur horri hurbiltzeko prozesua" hasiko du neskatoak. Porronek berari antzeko zerbait gertatu zitzaion, eta pasarte autobiografiko hori fikzio bihurtu du film laburra egiteko.

Porronek bere lana 80 hamar kadan kokatzea erabaki du, garai hartan gure artean askoz ere pertsona beltz gutxiago bizi zirelako. Data kokapen horrek filmaketarako giroa lan berezi bat egitea eskatu du.

Gainera, protagonista nagusia neskato bat da, Ariadna Domin-

guez, eta planoen %90ean agertzen da. Haren ahizparena Olaia Perezek egiten du. Gurasoena, berriz, Itsaso Arana eta Javier Chocarro. Haien bizipenak 15 bat minututan kontatuta izanen dira.

Zuzendariak

Porronek Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen eta ekoizle-exekutibo gisa lanean hasi zen. 25 bat filmetan parte hartu du. Besteak beste, *Vicky Cristina Barcelona* (Woody Allen), *Mapa de los sonidos* (Isabel Coixet), *Camino* (Javier Fesser) edo *Salvador-Puig Antich* (Manuel Hueraga) filmetan lan egin du. Marketingean ere aritu da, esaterako, Sony Europako zinema kameraren ataleko arduradun gisa. Berriki ikus-entzunezkoak lantzeko Nara Film Studio start-up-a sortu du.

Duela bi urte zuzentzeari ekin zion. Aurreneko lana *Lobito Bueno*, *Bruja Hermosa* film laburra izan zen. Raindance eta Xixongo jaialdietako sail ofizialerako aukeratua izan zen. Berriarekin ere bide hori egin nahiko luke. Bere bigarren lan hau filmatzeko Nafarroako Gobernuaren 23.232 euroko diru-laguntza jaso du. Julia Juaniz muntatzailearekin batera onduko du film laburra, azaroaren 1erako prest egon beharko duena, diru-laguntzak hala eskatuta. Jose Mari Lara da filmaren ekoizlea. Ekoizpena, berriz, Shangri-la Producciones eta Nara Film Studioren artekoa izan da.



2016an bilera-aurkezpena egiten. GUAIXE

Kultura Planean parte hartzeko gonbidapena

Nafarroako Gobernuak kultur eta arte eragileak antolatutako saioretara joatera animatu ditu

SAKANA

Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa lantzen ari da. Hura osatzeko kultura eta arte eragileen parte hartzea nahi du eta, horregatik, herrialdean barna sei lan-mahai antolatu ditu. Herri bakoitzean bi saio izanen dira. Aurrenekoan, gobernuko ordezkariak kultura arloko eragile nafarrekin diagnosiaren aurreneko proposamen bat kontrastatu eta ekarpenak jaso nahi dituzte. Horri esker, Nafarroako kulturaren gaur egungo eta etorkizuneko errealitatearen mapa eraikiko da. Bigarren saioan, berriz, hurrengo urteetarako Planaren zer ekintza egingo diren erabakiko da.

Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoko lan-mahai horietako bat Altsasun izanen da, Iortia kultur gunea zehazki. Lehen saioa astelehenean da, 11:00etatik 13:30era. Bigarrena, berriz, irailaren 22an, 17:00etatik 19:30era. Horretaz aparte, herritarren mahaiak aurreikusita daude, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren ikuspegiak osatzeko. Horiek hiru herrietan egingen dira eta haietako bat Altsasu da, irailaren 27an, ostegunean, Iortia Kultur gunean.



UTZITAKOIA

Ihabarren, antzerki eta erdi

Ihabarko antzerki taldeak Zinema Ihabar Paradiso antzezlana mustu zuen joan den asteburuan. Zinemaren historiaren errepaso berezia egin zuten. 500 bat pertsona elkartu ziren antzezlana ikustera ostiralean. Larunbatean ere jendetza izan zen, baina euriagatik antzezlana emanaldiaren erdian eten behar izan zuten. Lastailean berriro ematea aztertzen ari dira.



MOTXILA21

Motxila 21 en italiar bira

Down sindromea duten musikariz osatutako musika taldeak, Motxila 21ek, hiru kontzertu eskaini ditu agorriean Italian: Toscanako San Ciriaco di Sorrano Tutti birra jaialdian (8an), Genzano di Romako lorategi botanikoan (11n) eta Erroman, kalean, Bello Trasteveren (12an).

Artzain Egunari Mecna zigilua

Kultura Mezenazgo Legeari jarraituz, Nafarroako Gobernuak interes sozialeko kultur jarduerak izendatu du Artzain Eguna. Aralar Mendi elkarteak antolatzen duen egunari laguntza ematen dioten enpresek eta pertsonak pizgarri fiskal handiak dituzte. Esaterako, 150 euro arte ematen duten pertsonen %80ko kenkaria izanen dute errenta aitortpenen.



GUAIXE

Lau ikuskizunak



Txatarra

Bilboko Malas compañías taldearen antzerki-zirku ikuskizunaren osagaiak honakoak dira: upelak, taulak eta tramankuluak. Eta haiekin batera errutinak, ametsak eta partekatutako ahuleziak langai dituzte. Umorea, antzerkia, objektuen manipulazioa eta akrobazia; konformismo eta onespenetik urrun, inora daraman bidetik eramango gaituen ikuskizun dibertigarri bezain goxoa.



Isla

Zaragozako D'Click konpainiak gorputza eta mugimendua oinarria duen lana dakar. Akrobaziak eta masta txinatarrak, antzerkia eta dantza, zirkuak eta arriskua edota magia eta ametsen arteko mugak irauliko dituzte. Guztia itsasoan galdu diren hiru pertsonen berri emateko. Elkarren beharra dute, euren istorioak berregin eta haien uhartearen mugak gainditu ahal izateko..



Mundo de papel

Vol'e Temps konpainia Granadatik heldu da dibertigarria, goxoa eta oso bizkorra den istorio aztoragarri batekin. Umorea eta naturaltasunez zirkuak, antzerkia eta dantza teknikak uzartzen dituzte. Ikusleak etengabeko joan-etorrien lekuko bihurtuko dira eta dirudien guztia ustea besterik ez da, baina guztia dirudiena da. Ikuskizun fresko eta jostagarria unibertso absurdo eta poetiko bat erakusteko.



Flamenco vertical

Malagako Antonio Vargasek bere sustraiak, ibilbidea eta esperientzia akrobazia eta flamenkoa batuz irudikatu ditu. Performancea, zirkuak eta kabareta uzartzen ditu motza bezain bizia den ikuskizunak. Landutako garaikidetasuna eta hain barruan duen flamenkoa pieza bakarrean batu ditu. Bertikalean erakusten duen oreka fisiko definituaren bitartez maitasuna, grina eta askatasuna moduko emozioak adierazten ditu.



Herritarrak lortia zabalgunean zirku-ariketak ikusten. GUAIXE

Ezin zailago: kale-zirku ikuskizunak Altsasun

Guztia prest dago Altsasuko lortia zabalgunean bihar, 18:00etatik aurrera lau ikuskizun hartzeko

ALTSASU

Nafarroako Zirku Jaialdiaren bost egoitzetako bat izanen da beste behin Altsasu. Tuterak, Uharte Iruñeak, Vianak, Altsasuk eta San Adrianek bat egin dute eta bosten artean *Ezin zailagoa*, XVI. Nafarroako Zirku Jaialdia antolatuko dute. Asteazkenean hasi eta igandera bitartean, herri batetik bestera egoitzaz aldatuko du jaialdiak. Altsasuk larunbatean hartuko du. Guztietan lau konpainien zirku ikuskizunekin gozatzeko aukera izanen da.

Bost udalek euren beharrak eta aukerak batuz, sarean lan eginez antolatzen dute jaialdia, zirkoaren arloan erreferentziazko hitzordua bilakatuz Nafarroan.

Jaialdiaz

Nafarroan ibilbide luzeen duen kale-programazioetako bat da jaialdia. Baina ez du ibilbide

gozoa izan. Krisiarekin aurrekontuak murriztu behar izan ziren eta haren jarraipena kolokan egon zen. Baina krisi batean, 2012an, aukera ere sortu zen: Zirku Pirinioak proiektuak finantzazio bide berria ekarri zuten. Europako diru-laguntzarekin aurrera segitu zuten jaialdiak, bere finantziarioa bermatuz, Europako zirko eredu berrietara zabalduz eta Nafarroako jaialdia nazioartean kokatuz. Europako proiektuak segida du, oraingoan Itsasotik itsasora, Zirku Pirinioak izenarekin.

Nafarroako Zirku Jaialdiak 48.800 euroko aurrekontua du. Baina Europako Feder funtsaren laguntzei esker 33.600 euro pagatuko dituzte bost udalek. Gainera udalek Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuaren Arte eta Kultura programaren bidez finantzatzeko aukera izanen dute.

Erretratuaren teknikan trebatzeko New Yorkera

Horixe egin du udan Isabel Garcia irurtzundarrak; galeria batean erakutsi du ere

IRURTZUN

Garila guztia New Yorken eman du Isabel Garciak (Isabel G Irurzun izen artistikoa). Margolari irurtzundarra erretratugintzan trebatzen eman du udako hila-bete hori. The Art Students League eta Grand Central Atelier ikasteetxeetako hainbat ikastaroetan izan zen bere erretratugintza teknika hobetzen. Horretarako hainbat irakasleekin izan zen. Gainera, margolariak bere lana erakusteko aukera izan zuen. Manhattan JMC Custom Framing Inc. galerian New Yorken eta bere estudioan egindako erretratuak jarri zituen ikusgai bi astez Isabel G Irurzunek.

Egun Atarrabian bizi den margolariak bere burua autodidaktatzat du. Catalina de Oscarizen arte eskolan hasi zen trebatzen. Ondoren Salvador Beunza, Juan Jose Aquerreta, Antonio Lopez eta Mikel Esparza margolariekin trebatu da. Irurtzundarrak Diario de Noticias egunkariari azaldu zionez, azken horrek sartu zion erretratuaren harra.

Isabel G Irurzun ere haur eta helduen irakaslea bada. 17 urteko eskarmentua du eta eskolak bere estudioan eta Irurtzunen ematen ditu.

Kirola Euskaraz

¿LAN BILA ZABILTZA?

EMAN IZENA SAKANAKO MANKOMUNITATEKO KIROL MONITORE, ENTRENATZAILE ETA AURKEZLE EUSKALDUNEN LAN-POLTSANI

BALDINTZAK: GUTXIENEZ 18 URTE IZATEA, EUSKALDUNA IZATEA ETA OINARRIZKO KIROL TITULAZIOA IZATEA.

IZEN EMATEA: SAKANAKO MANKOMUNITATEKO KIROL ZERBITZUAN (948 464 866 EDO KIROLAK@SAKANA-MANK.EUS)

OHARRA: BEREZIKI SPINNING, ZUMBA, PILATES ETA YOGA MONITOREAK BEHAR DIRA

ERABILTZAILERAK: BEGIRALE EUSKALDUNEN ETA AURKEZLEEN ZERRENDAK SAKANAKO UDAL ETA MANKOMUNITATEEK ZEIN ENTITATE PRIBATUEK ERABILI DITZAKETE. SAKANAKO MANKOMUNITATEKO KIROL ZERBITZUA BITARTEKARIA IZANEN DA. EZ DA LAN HARREMANIK SORTUKO SAKANAKO MANKOMUNITATEAREN ETA ZERRENDAKO KIDEEN ARTEAN.

Mank
U D A L A R E N

“Lana zuk nahi duzun moduan egin dezakezu”

Antonio osabaren erreleboa hartu eta artzaina da Jokin Uharte. Ospatu berri den Artzain Eguzaz esan digu "egun garrantzitsua" dela "herriarendako eta lanbide honetan aritzen garen guztiondako ere. Artzaintza ezagutzeko oso aukera ona da".

Larraitx Amadoz Lazkano
UHARTE ARAKIL

1 Noiz hasi zinen artzain lanbidean?

Orain dela 15 urte inguru hasi nintzen. Osabak artaldeak zeukan eta berari laguntzen eman nituen nire lehengo urteak. Duela 7 urte nik hartu nuen lekukotza osaba jubilatutik zenean, eta barririk nabil harrezkerotik.


2 Beste lanik izan duzu?

Bai. Ikasketak bukatu eta gero lantegi batean egon nintzen bi urtez, baina ez nuen nire lekua bertan aurkitu. Ondoren, osabaren artaldearekin lanean hasteko aukera izan nuen eta hemen jarraitzen dut. Askoz ere gusturago nago hemen.

3 Prestakuntzarik jaso duzu artzain izateko?

Laborantzarekin zerikusia zuen Lanbide Heziketa egin nuen eta jakintza horrek balio izan dit. Ingeniaritza egiten ere saiatu nintzen, baina ez zen ongi aterata eta beste bide batetik joatea erabaki nuen.

4 Osabaren jakintzak lagundu dizu lanbidea ikasteko orduan?



Jokin Uharte, artzaina. LARRAITX AMADOZ LAZKANO

Noski. 7 urte inguru aritu nintzen osabarekin langile moduan arduratzen gutxiagorekin, baina, bitartean ikasteko aukera handia dago. Gauzak nola egiten diren ikusten duzu, esperientzia hartzen duzu.

5 Zer eman dizu lanbide honek?

Gauzak zure modura egiteko aukera ematen dizu. Hori azpimarratuko nuke. Lana zuk nahi duzun moduan egin dezakezu, inork ez dizu agintzen eta horrek esanahi berezia dauka niretako.

Lanaren egunerokotasunari dagokionez, ordutegi zehatzak ere baditugu, adibidez, ardiak jetzi, janaria eman. Hala ere, gainontzeko ardurak egiteko askatasun osoa duzu. Denborarekin gainera hobetzeko ilusioa hartzen duzu lanbide honetan.

6 Zein da zure egunerokoa?

Urtaroaren arabera aldatu egiten da lana. Otsailetik aurrera, udaberria aldera, arkumeak jaiotzen dira, eta hori izaten da arduratzen nagusia.

Oso gainean egon behar zara garai horretan, batez ere, arkumea izan duten ardiekin. Borda barruan egoten dira ardiak eta kanpoan daudenean baino lan gehiago izaten da, garbitu, janaria eman, eta egunero aurreikusitako lanak agertzen dira. Udan larrean egoten dira ardiak eta jetzi behar ditugunean baino ez ditugu bordan sartzen. 06:30ean eta 17:30ean jetzi behar dira. Belarrak moztu eta bildu behar dira neguko bazka prestatzeko. Udazkenean egun osoa kanpoan egoten dira, eta lan gutxien dagoen denboraldia da.

7 Udan mendira igotzen duzu artaldeak?

Ez, Uharte Arakil inguruko larreetan izaten ditugu uda osoa. Duela urte batzuk osabarekin mendira igotzen genituen, baina azken urteetan behean gelditzen dira. Irail arte egunero jezten ditugu eta mendira igo gabe ere eroso ibiltzen dira ardiak.

8 Gazta eta esnea saltzen dituzu?

Batez ere esnea saltzen dugu. Joan den urtean arrebarekin gazta egiten hasi ginen, eta hortaz, gure marka sortu genuen,

Mirube, Idiazabal izendapen jatorrikoa. Horretaz aparte, gure esnearen kopuru txiki bat hemengo gaztandegi batera eramaten dugu eta beraiek egiten digute gazta. Gutxika-gutxika saltzen ari gara gazta eta pozik gaude.

9 Zein iritzi duzu artile eta arkumeen prezioaren inguruan?

Aurten adibidez, ez du inork ere artilea erosi eta bota behar izan dut; beraz, atera kontuak hortik.

Momentu honetan, egia esan, ez du inork erosten artilea. Arkumeei dagokionez, aurtengo prezioak mantendu edo zer edo zer jaitsi dira eta arazoak izan ditugu saltzeko. Ez dut oso balorazio ona egiten.

10 Babesik daukazue instituzioen aldetik?

Beti egin daiteke gehiago; hori horrela izaten da. Dena den, aurten, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak Altsasun jardunaldi batzuk antolatu zituzten. Ardi Latxaren plan estrategikoa egiteko asmoarekin bildu ginen eta oso aberasgarria izan zen. Gure beharrak azaltzeko aukera izan genuen eta lanbide hau sustatzeko hainbat proposamen atera ziren topaketa horretatik.

11 Uharteko Artzain egunean parte hartu duzu?

Bai, noski. Ardi-moztaileei ardiak eraman nizkien lehenik eta, ondoren, txakurren lehiaketara ere eraman genituen ardiak. Osabak lehiaketa honetan parte hartzen du, baina nik ez.

Osorik: www.guaixe.eus

Bazkide zozketa

GARILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
AQUARIUM: SARRERA BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
AQUARIUM: SARRERA BAT



CAMPING
ARTAZA

Ekain berri

